

**AUTOKONTZEPTUA ARTE PLASTIKOEN  
BIDEZ LANTZEKO LEHEN  
HEZKUNTZARAKO PROPOSAMEN  
DIDAKTIKOA**

**GRADU AMAIERAKO LANA**

EGILEA: Marin Zabala, Amaia.

ZUZENDARIA: Ramos Diaz, Estibaliz.

**2020**

## **LABURPENA**

Autokontzeptua, nork bere buruari buruz duen irudia bezala ulertuta, nortasuna eraikitzekeo prozesuan landu beharreko arloa da. Hau, Lehen Hezkuntzako aroan garatzen hasten den prozesua da eta beraz, garrantzitsua da oinarri finko bat izatea garapen egoki bat eman dadin. Lan honen helburua autokontzeptu orokorra lantzeko eta horretan lehen urratsak emateko programa baten diseinua aurkeztea da. Honetan, arte plastiko eta bisualak erabiliko dira baliabide nagusi bezala, adierazpen bide malgu eta askeak diren aldetik. Sormena izango da lanketa ahalbidetuko duena, ikasle bakoitzak bere burua nolakoa den aztertu eta askatasunez adieraztea bilatuz. Proposamen didaktikoa Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasleei dago bideratuta, autokontzeptuaren prozesuan adin erabakigarria baita. Horretarako, lan honetan arlo psikologiko zein artistikoaren inguruko oinarri teorikoak azalduko dira gaia testuinguratzeko helburuarekin. Lanaren muina aldiz, proposamen didaktiko bera izango da, 6 saioko programa bat non ikasleei autokontzeptua garatzeko aukera eskainiko zaien jarduera ezberdinen bidez.

*Hitz gakoak:* autokontzeptua, arte plastikoak, arte bisualak, lehen hezkuntza, proposamen didaktikoa

## **ABSTRACT**

Self-concept, understood as the image one has of oneself, is an area to work on in the process of identity construction. This process begins to develop in Primary School, so it is important to have a fixed base to give an adequate development. The aim of this work is to present the design of a program to work on the general self-concept and take the first steps. There will be used plastic and visual arts as the main means. Creativity will allow us to work so that each student can explore and express himself/herself freely. The didactic proposal is oriented to the students of 5th grade of Primary as it is a decisive age in the process of self-concept. To this end, this paper will set out the theoretical bases on the psychological and artistic field with the aim of contextualising the subject. The work will focus on the didactic proposal, a program of 6 sessions in which students will be offered chance to develop their self-concept through different activities.

*Key words:* self-concept, plastic arts, visual arts, Primary School, didactic proposal

## RESUMEN

Entendiendo el autoconcepto como la imagen que uno tiene de sí mismo, es un área a trabajar en el proceso de construcción de la identidad. Es un proceso que comienza a desarrollarse en Educación Primaria, por lo que es importante contar con una base fija para dar un desarrollo adecuado. El objetivo de este trabajo es presentar el diseño de un programa para trabajar el autoconcepto general y dar los primeros pasos. En ella se utilizarán las artes plásticas y visuales como medio principal de expresión flexible y libre. La creatividad será lo que permita trabajar buscando que cada alumno y alumna se explore y se exprese libremente. La propuesta didáctica está orientada al alumnado de 5º de Primaria por ser una edad decisiva en el proceso del autoconcepto. Para ello, en este trabajo se expondrán las bases teóricas sobre el ámbito psicológico y artístico con el objetivo de contextualizar el tema. El trabajo se centrará en la propuesta didáctica, proponiendo un programa de 6 sesiones en el que se ofrecerá al alumnado la posibilidad de desarrollar el autoconcepto a través de diferentes actividades.

*Palabras clave:* autoconcepto, artes plásticas, artes visuales, educación primaria, propuesta didáctica

# AURKIBIDEA

1. Sarrera .....	1
2. Justifikazioa.....	1
3. Marko teorikoa .....	2
3.1. Autokontzeptu orokorra .....	2
3.1.1. Definizioa .....	3
3.1.2. Dimentsioak.....	4
3.1.3. Autokontzeptuaren garapena Lehen Hezkuntzan.....	7
3.1.4. Autokontzeptua hezkuntza arloan.....	8
3.2. Arte plastikoak.....	9
3.2.1. Definizioa .....	9
3.2.2. Sailkapena .....	10
3.2.3. Arte plastikoak eta garapena Lehen Hezkuntzan.....	12
3.2.4. Arte plastikoak hezkuntza arloan .....	14
3.3. Autokontzeptua eta arte plastikoak.....	15
3.4. Autokontzeptua neurtzeko programak eta galdetegiak.....	16
4. Helburua .....	18
5. Metodoa. Proposamen didaktikoaren diseinua.....	18
5.1. Justifikazioa.....	18
5.1.1. Hautatutako gaiaren arrazoiak eta hautatutako adina.....	18
5.1.2. Hautatutako etaparen ezaugarriak .....	18
5.2. Arazo-egoera.....	20
5.3. Curriculumarekin lotura .....	21
5.3.1. Oinarrizko konpetentziak .....	21
5.3.2. Etapako helburuak.....	23
5.3.3. Edukiak .....	24
5.3.4. Ebaluazio irizpideak eta lorpen-adierazleak.....	25
5.4. Metodologia .....	27
5.5. Saioen planifikazioa .....	28
5.6. Ebaluazioa.....	30
5.6.1. Ikasleen ebaluazioa .....	30
5.6.2. Ebaluazio tresnak.....	31
5. Ondorioak.....	32
6. Mugak eta hobekuntza proposamenak .....	33
7. Erreferentziak.....	35
8. ERANSKINAK .....	38

# 1. Sarrera

Eskola ikasleen testuinguruaren parte den aldetik, ahalik eta ekarpenik aberatsena egitea bilatu behar da. Gaur egun jada gainditu egin da ezagutza akademiko puruen helburu isolatua eta garapen integral batera bideratutako hezkuntza bilatzen da. Honen barruan, hezkuntza emozionala gero eta garrantzia handiagoa hartzen doa eta bada honen inguruan sakontzeko nahia. Hala ere, sarritan aurkitzen dira denbora edo baliabide falta bezalako aitzakiak eta horren aurrean, hezkuntza sistemari egokitzen zaion proposamen bat aurkeztuko da lan honetan.

Hezkuntza emozionalaren barruan, Lehen Hezkuntzan ikasleen nortasunaren garapena bilatzen da eta honekin lotuta autokontzeptuaren garapena. Garapen hori prozesu bat dela ulertuta, ezinbestekoa da ikasleek autokontzeptua eraikitzen joateko oinarri sendo bat izatea eta gehienetan zeharka lantzen den gaia da. Ikasleek identitatea haien testuinguruaren arabera garatzen dute eta askorentzako eskola izan daiteke gaia jorratzeko eremu bakarra. Eskola eta bertako kideak erreferente handiak dira ikasleentzako eta horregatik autokontzeptua bezalako gaiak landu behar dira aipatutako garapen integrala eman dadin.

Aurreko guztia ikusita, lan honetan Lehen Hezkuntzako 5.mailako ikasleei bideratutako programa bat aurkeztuko da. Honetan autokontzeptu orokorraren garapena bilatzen da, hezkuntza artistikoan oinarritutako proposamen didaktiko baten bidez. Proposamen honek hizkuntza eta espresio-modu bat eskaintzen digu, haurraren garapen afektiboa nahiz bere autokontzeptua eraikitzeko bitarteko moduan.

Hasiera batean aurrera eramateko asmoa bazegoen ere, gizarteak jasandako COVID-19 aren pandemia egoeraren ondorioz, ezinezkoa izan da eskola batean praktikan jartzea. Hori dela eta, proposamen hipotetiko baten moduan aurkeztuko da programa.

## 2. Justifikazioa

### Justifikazio pertsonala

Eskolan garrantzia handia ematen zaio ezagutza teorikoak bereganatzeari, baina ikasleen garapen integrala lortzea bada helburua, ezin dira atzean utzi dimentsio afektibo, psikologiko eta soziala. Arlo hauek lantzeak onura ugari ekartzen ditu ikasleen garapenean, baina horretarako ezinbestekoa da eskolan lanketa horri denbora eskaintzea.

Honekin lotuta, oso garrantzitsua da ikasleek autokontzeptu egokia eraikitzea, haien buruak ezagutu eta norberaren nortasuna eraikitzeko bidean. Lanketa horrekin batera, ikasleak autonomia eta kritikotasuna garatzen joango dira. Horretarako, lan honetan Lehen Hezkuntzako 5. mailan aurrera eramateko programa bat proposatuko

da. Honen helburua ikasleen autokontzeptu orokorra identifikatu, behatu eta horren inguruan lanketa bat egitea izango da.

Ukazezina da emozioen eta adierazpen artistikoen arteko lotura. Horren barnean, arte plastikoak adierazpen bide oso interesgarriak dira, izan ere, ikasleak gai dira hitzez azaldu ezin dituzten emozioak azaleratzeko. Gainera, ikasleek gustuko dute baliabide honekin lan egitea. Oso erreminta egokia izan daiteke ikasleekin autokontzeptua lantzeko eta horregatik izango dira arte plastiko edo bisualak programa honen baliabide nagusiak.

### **Justifikazioa lege eta arau ikuspegitik: legeei erreferentzia**

Jarraian aurkezten den programa honen marko juridikoa HEZIBERRI 2020ren eskutik dator. Zehazki, abenduaren 22ko 236/2015 DEKRETUA eta 236/2015eko DEKRETUAREN II. eranskina osatzen duen curriculum orientatzailea hartuko dira oinarritzat programa honen diseinuko helburuak, edukiak, irakaskuntza eta ikaskuntza jarduerak eta ebaluazio irizpideak zehazteko.

Hemendik aurrera DEKRETUA aipatzean, aurreko honi egiten zaio erreferentzia. Honen arabera, Lehen Hezkuntza derrigorrezko hezkuntzako lehen etapa da. Sei ikasturtez osatua, 6-12 urte bitarteko haurrak baita hartuta eta hiru ikasturteko luzera duten bi ziklotan antolatuta dagoena.

## **3. Marko teorikoa**

Atal honetan, lana teorikoki oinarritzeko definizio eta azalpenak emango dira, horretarako hainbat adituren lanak hartuko dira erreferentzia moduan. Lan honen helburua autokontzeptu orokorra lantzea den heinean, psikologiaren arlo horrekin emango zaio hasiera marko teorikoari bertan definizioa, dimentsioak eta ikasleen garapena eta hezkuntzarekin duen lotura azalduz. Bestetik, arte plastiko edo bisualak izango dira programan erabiliko diren baliabideak eta marko teoriko honen bigarren zatian emango da horren inguruko informazioa. Horretan, aurrekoan bezala, definizioaren ostean sailkapena azalduko da. Ondoren, artea eta hezkuntzaren arteko loturaren inguruko informazioa emango da. Marko teoriko honi amaiera emateko hizpide diren bi gaien arteko lotura ezarriko da orain arte egindako hainbat programa eta galdetegi azalduz.

### **3.1. Autokontzeptu orokorra**

Psikologia arloan, autokontzeptua oso gai aztertua izan da historian zehar eta horren barne zein kanpo egituren lan ugari aurki ditzakegu. Kontzeptua hobeto ulertzeko eta haren garrantziaz ohartzeko, lehendabizi, psikologia arloan kokatuko da autore ezberdinen lanak aztertuz.

Autokontzeptuak berebiziko garrantzia du nortasunaren garapenean, teoria psikologiko nagusiek nabarmentzen duten bezala; autokontzeptu positiboa funtzionamendu pertsonal, sozial eta profesional onaren oinarrian dago, hein handi batean, norberaren gogobetetzea eta norbere buruarekin ondo sentitzearekin lotuta (Goñi-Palacios, 2009).

Badira adimen emozionalaren inguruko ikerketa eta lan ugari, esaterako Golemanek horrela definitu zuen adimen emozionala 1995an: “Adimen emozionala geure eta besteen sentimenduak ezagutzeko, motibatze eta harremanak behar bezala maneiatzeko gaitasuna da” (García Fernández eta Giménez-Mas, 2010, 45.orr). Adimen emozionalaren barruan, emozioekin lotutako gaitasunekin batera nortasunaren beste hainbat aspektu aurkituko ditugu, bertan autokontzeptua kokatuz.

Gardnerrek (1995) bere aldetik, garrantzia handia eman zion norbere ezagutza eta analisiari bere adimen anitzen teorian, adimen intrapertsonala adierazi zuen gizakiaren zazpi adimenetako baten moduan. Adimen mota horrek norberaren buruaren irudi zehatza osatzeko aukera ematen du; nork bere beharrak, ezaugarriak eta akatsak ulertuz (Mercadé, 2019).

Nortasunaren barnean, autokontzeptua izango litzateke alderdi azpimarragarrietako bat. Ikaskuntza akademikora hurbilduz, Corno eta Snowk (1986) hiru aztergai zehazten dituzte: alderdi kognitiboa, alderdi konatiboa eta afektuaren alderdia. Azken honen barne aurkituko ditugu motibazio akademikoa eta nortasuna, bertan autokontzeptua kokatuz (González, Nuñez, González eta García, 1997).

### **3.1.1. Definizioa**

Autokontzeptua definitzerako orduan, autore askoren hitzak topatuko ditugu. Nuñez, González eta González (1995), horrela definitu zuten: autokontzeptua subjektuak bere buruari buruz garatzen dituen sinesmen edo autokontzeptuen multzoa da, analisi, interpretazio eta baloraziotik abiatuta jasotzen duen informazio autoerreferentea, bere esperientziaren eta beste eragileek (familia, irakasle edo bere berdinak) transmititzen diotenaren bidez.

González, Nuñez, González eta García (1997) ordea, hurrengo definizioa eman zuten autokontzeptua, norberak bere buruaz duen irudia da, kanpoko zein barneko informazioaren metaketa integratzaileak zehazten duena, eta estilo eta balore-sistemen interakzioaren bidez epaitu eta baloratzen dena.


Autokontzeptuaren kontzeptualizazioarekin jarraituz, Purkeyk (1970, 7.orr.) horrela definitzen du: “Sinesmenen sistema konplexu eta dinamikoa, gizabanako batek bere buruarekiko egiazkotzat jotzen duena, sinesmen bakoitzak dagokion balioa duela”. Horri, Shaverson, Hubner eta Statonek (1976) honako hau gehitu zioten: Pertsona batek bere buruari buruz dituen pertzepzioak baino ez dira, bere esperientziaren eta ingurunearen interpretazioaren bidez osatuak, eta, bereziki, beste adierazgarrien errefortzu eta feedbacka, bai eta norberaren mekanismo kognitiboak ere, hala nola kausazko atribuzioak (González, Nuñez, González eta García, 1997).

Behin autokontzeptua definituta, kontuan hartzekoa da, sarritan aurkitzen direla termino horrekin lotzen edo nahasten diren hainbat kontzeptu, esaterako autoestimua, norberaren irudia, autodefinizioa, ni-a etab. Lan honetan autokontzeptua terminoa erabiliko da ikerketa ezberdinetako autoreek hala egiten diotelako erreferentzia. Hala ere, oso ohikoa da bereziki, autokontzeptua autoestimuekin nahastea, baina horien bereizketa semantikoa erraz ezar daiteke: autokontzeptua dimentsio deskribatzailea da, eta pertsona bakoitzak bere buruaz duen ideiarri egiten dio erreferentzia; autoestimua, berriz, balioespen-dimentsioa da, eta bakoitzak bere kabuz sentitzen duen estimua edo maitasuna aipatzen du (Goñi-Palacios, 2009).

### 3.1.2. Dimentsioak

Autokontzeptuaren osaketa eta egiturari erreparatzerakoan, historian zehar psikologia arloan eredu ezberdinak agertu dira. William Jamesek autokontzeptua multidimentsionala zela babesten zuen, baina ez zen izan 80. hamarkadara arte eredu hau onartua izan zela, ordura arte, autokontzeptua unidimentsional eta globalizat hartzen baitzen. Autokontzeptua hierarkizatu eta multidimentsionalizat ulertzeko, Shavelson, Hubner eta Stantonek (1976) egindako lana hartzen da erreferentzetzat, izan ere, bestelako ikerketa asko agertu ziren honen aldeko (Boersma eta Chapman, 1985; Harter, 1982; Marsh, 1987; Marsh, Barnes, Cairns eta Tidman, 1984; Marsh eta Hattie, 1996; Soares eta Soares, 1979). Bertan autokontzeptua lau domeinu nagusitan banatzen da: akademikoa, soziala, afektiboa eta fisikoa; horiek dimentsioetan banatuta dauden bitartean (González eta Goñi, 2005).

Autokontzeptuaren multidimentsionaltasuna ulertzeko eredu ezberdinak badaude ere, lan hau aipatutako Shavelson, Hubner eta Stantonen (1976) lanean oinarrituko da.



1. irudia Autokontzeptuaren eredu (Shavelson, Hubner y Stanton, 1976)



Beraz, autokontzeptuaren barne egiturari erreparatuz, 1. irudian ikusten den moduan autokontzeptua lau domeinutan banatu dezakegu: akademikoa, soziala (gurasoekiko, familiarekiko eta berdinekiko harremana), fisikoa (itxura eta gaitasuna) eta pertsonala (afektua eta moralitasuna). Hala ere, eremu guztiek ez dute arreta berdina jaso ikerketan; autokontzeptu akademiko eta fisikoaren inguruan ikerketa ugari egin diren bitartean, autokontzeptu soziala eta, batez ere, emozionala proportzio askoz txikiagoan aztertu dira.

### Autokontzeptu akademikoa

Autokontzeptu akademikotzat har daiteke "ikasleak bere buruaz ikastun gisa duen irudikapena, hau da, ikaskuntzari testuinguru instrukzional batean aurre egiteko ezaugarri edo trebetasun jakin batzuk dituen pertsona gisa duena" (Miras, 2004 in Goñi-Palacios, 2009). Baina askotariko definizioak eskaini dira, ikasleak ikasteko duen gaitasunari buruz duen ikusmoldean edo zeregin akademiko jakin batean amore emateko duen gaitasunaren pertzepzioan eragiten dutenak. Beste definizio askotan autokontzeptu akademikoaren bi alderdi nagusi daude (Strein, 1993 in Goñi-Palacios, 2009): deskribatzailea ("matematikak gustatzen zaizkit") eta ebaluatzailea ("ona naiz matematiketan").

Eskola-testuinguruak eragin handia du, eta, beraz, bai irakasleak bai berdinak informazio-iturri garrantzitsua dira autokontzeptu akademikoa eraikitzeko (Scott, Murria, Mertens eta Dustin, 1996; in Goñi-Palacios, 2009).

### Autokontzeptu soziala

Psikologiatik egin den giza garapenaren azterketak bereizketa hirukoitza ezartzen du kognitiboaren, afektiboaren eta sozialaren artean. Arlo sozialak, bizi garen gizarteko pertsona eta erakundeeekiko harremanei egiten die erreferentzia, baina zehaztu behar da lotuta dagoela garapen kognitibo eta afektiboekin, pertsonen arteko harremanen aberastasun eta konplexutasun gero eta handiagoaren berri ematen baitu (Reymond-Rivier, 1986; in Goñi-Palacios eta Fernandez-Zabala, 2007).

Gonzalez eta Goñik (2005), azterketa psikologikoetan oinarrituta, autokontzeptu soziala hiru dimentsiotan egituratu daitekeela diote: erantzukizun soziala, onarpen soziala eta gaitasun soziala.

- Erantzukizun soziala, pertsona bakoitzak gizarte-funtzionamenduari egiten dion ekarpena hautemateko duen modua da: guztion onerako ekarpena, gizateriaren hobekuntzarako konpromisoa...
- Onarpen soziala, pertsona bakoitzak besteekiko duen erreakzioa hautemateko duen modua da; besteak beste, besteekiko elkarrekintzekiko sentrazio pertsonalak, onarpenaren edo arbuioaren pertzepzioa, errekonozimendu soziala...
- Gaitasun soziala, pertsona bakoitza egoera sozialetan egiazkoa izanik (hau da, bortxatuta edo erreprimetuta egon gabe) nola hautematen den modua da; jendearekin

sintonizatuz (enpatia), egoera konplikatua konpontzeko trebetasun sozialekin, asertiboa izateko, oldarkorra izan gabe.

### Autokontzeptu emozionala/pertsonala

Autokontzeptu pertsonal modura aurkituko da domeinu hau lan askotan, izan ere, pertsona bakoitzak, indibiduala den aldetik, bere buruaz duen ideari egiten dio erreferentzia, eta oso garrantzitsua da haren dimentsioak edo osagaiak identifikatzen saiatzea (Goñi-Palacios, 2009).

Domeinu honen egiturari dagokionez, Goñi, Fernandez, eta Infantek (2012) ondorengoa aipatzen dute. Ikerketa psikologikoen autokontzeptu pertsonalean bi dimentsio lehenetsi dituzte: autokontzeptu morala eta autokontzeptu emozionala. Baina teoria horiek hamarkadak daramatzate garapen psikologiko indibiduala azaltzen; eta horien ikuspegi sintetiko batek baimentzen du, gutxienez, honako lau dimentsio hauek kontuan hartzea:

- Autokontzeptu afektibo-emozionala: nola ikusten den pertsona bat bere burua doikuntza emozionalari edo emozioen erregulazioari dagokionez.
- Autokontzeptu etikoa/morala: pertsona batek zenbateraino jotzen duen bere burua zintzotzat.
- Autonomiaren autokontzeptua: bakoitzak bere irizpidearen arabera bere bizitzari buruz zein neurritaraino erabakitzen duen hautematea.
- Autoerrealizazioaren autokontzeptua: nola ikusten duen bere burua pertsona batek bere helburuak lortzeari dagokionez.

### Autokontzeptu fisikoa

Ikerketa askok hartu dute dimentsio fisikoa ardatz moduan, eta jarduera fisikoaren eta autokontzeptu fisikoaren arteko harreman positiboa aurkitu da adin desberdinetan eta horrek eragin positiboa du autokontzeptuan, konstruktua multidimentsionaltzat jotzen baita (Murgui, García eta García, 2016).

Autokontzeptu fisikoaren barnean, lau dimentsio edo azpidomeinu aurkitzen dira: trebetasun fisikoa, egoera fisikoa, erakargarritasun fisikoa eta indarra. Hauekin lotuta, oro har, jarduera fisikoren bat maiz egiten dutenek autopertzepzio hobeak adierazten dituzte, beren trebetasun fisikoari eta egoera fisikoari dagokienez. Aitzitik, norberaren itxura fisikoaren pertzepzioak lotura txikiagoa du jarduera fisikoarekin, nahiz eta jarduerak zenbait ikerketetan erakargarritasun fisikoaren pertzepzioan onurak ere aurkitu dituen (Revueña, Esnaola eta Goñi, 2016).

Autokontzeptu fisikoari buruzko azterlanek hainbat profesionalen arreta pizten dute (medikuak, irakasleak, hezitzaile fisikoak, gizarte-hezitzaileak...), gaur egun gizartean eragin handia duten gaiek (elikadura-jokabidearen nahasmenduak, bizi-ohitura osasungarriak, ongizate psikologikoa, etab.) hezkuntza- eta prebentzio-arloan esku hartzeko beharra pizten baitute (Goñi-Palacios, 2009).

### 3.1.3. Autokontzeptuaren garapena Lehen Hezkuntzan

Allportek (1976), "bere buruaz jabetzea"-ren alderdi ezberdinak haurtzaroan pixkanaka garatzen direla zioen. Bere buruaz kontziente izateko lana adin goiztiarretan hasten da (2-3 urte gutxi gorabehera) (Hess eta Croft, 1981; Roman-Sanchez eta Musitu-Ochoa, 1982 in Schmidt, Messoulam eta Molina, 2008). Aurrerago, haurrak barneratu duen autobalorazioa azal dezake, bere buruaz egin duen irudia. Baina autokontzeptuak, etapa honetan, izaera partziala du oraindik, ezegonkorra da, ekintza zehatzekin lotuta dago eta helduek egiten dituzten balorazioen asimilazio zuzena kontsideratzen da (beraz, asimilazio ez erreflexiboa da, akritikoa). 7 urterekin irudi hori egonkortzen hasten da, beraz, posible da "autokontzeptuaz" hitz egitea (Schmidt, Messoulam eta Molina, 2008).

Ikerketa ezberdinek etapa zehazteko bestelako modu batzuk aurkezten badituzte ere, Auxe, Goñi, eta Zulaikak (2008) aurkeztutako eredia askotan ikus daiteke, haurren autokontzeptuaren garapenaren barruan, hiru etapa ezberdinduz:

- Eskola aurreko urteetan (0-5 urte) autokontzeptua zentzu global batean ulertzen da, beren buruak besteengandik ezberdintzeko termino fisikoak erabiltzen dituzte, kanpoko ezaugarri arbitrario eta ezegonkorretan oinarrituta. Lehen bi urteetan haurren gertuko helduek informazio jakin bat helarazten diote, bere gorputzaz jabetzea ahalbidetzen diona, gorputz-irudia garatzen duena. Bi urte inguruan, hizkuntzaren garapenarekin, jolas sinbolikoarekin eta imitazioarekin are gehiago indartzen da. Hiru urterekin, haurrak sexu-identitatea eskuratzen du, eta horrek, autokontzeptua garatzea ahalbidetzentu.
- Bigarren etapan (5-8 urte), eskola-testuinguruan sartzean, autokontzeptuaren eraikuntzan eragina duten faktoreak biderkatu egiten dira: lorpenen eta/edo porroten kontzientzia (gaitasun kognitiboa eta psikomotrizitatea garatzea), askotariko pertsonekin harreman gehiago izatea (interakzio sozialak areagotzea). Haurrak haien buruak deskribatzeko gai dira pentsamendu, desio eta sentimenduak dituen pertsona gisa eta gizatalde edo familia bateko kide gisa. 5-6 urtekoen berezko sexuaren pertzepzioak eta 7-8 urtekoen ezaugarri anatomikoetan oinarritutako identitate sexualak norberaren gaineko pertzepzio egokiagoa erraztuko dute.
- Hirugarren etapan (8-12 urte), haurra ezaugarri fisiko eta psikologikoak bereizteko gai da eta Nia deskribatzeko termino psikologikoak erabiltzen hasiko da. Haurren autokontzientzia norberaren juizioetan eta ebidentzietan oinarritua egoteaz gain, besteekiko konparazioetan ere oinarrituko da. Aurrerapen hauek umearen garapen kognitiboarekin eta gizarte harremanekin lotuta daude, izan ere, etapa honetan, onarpen sozialak leku pribilegiatua izango du. Nerabezaroari begira, norberaren pentsamendu eta sentimenduen inguruko gogoeta egiteko aukera garatzen hasten dira.

### 3.1.4. Autokontzeptua hezkuntza arloan

Gure Hezkuntza sisteman oinarrian dagoen Curriculum dekretuaren barruan autokontzeptuak lekua hartzen du, bereziki oinarrizko zehar kompetentzien arloan, hala ere, bada kontzeptuaren aztarna oinarrizko diziplina barneko kompetentzietan ere, izan ere, oinarrizko zehar-kompetentzia eta kompetentzia espezifiko guztietan esku hartzen du "norbera izaten ikasteak".

Heziberri 2020 dekretuan, oinarrizko zehar kompetentzietan zentratuz, norbera izaten ikasteko kompetentziak honako definizioa jasotzen du: "Norberari bizitzako esparru eta egoera guztietan sortzen zaizkion sentimenduez, pentsamenduez eta ekintzez gogoeta egitea da, haiei buruz egiten den balorazioaren arabera sendotu eta egokitzea horiek guztiak, eta, era horretan, etengabeko hobekuntzaren bidez, norbera autorrealizaziora bideratzea, errealizazio horren dimentsio guztietan." Honen barruan, autokontzeptuaren garapena ageri da autorrealizaziora bideratuta dagoen hazkuntza-prozesu mugagabe horren emaitza moduan:

- **Autokontzeptua garatzea, eta, horren barnean, gero eta errealitate-oinarri handiagoz identifikatzea norberaren alderdi positiboak eta negatiboak (dimentsio kognitiboak).**
- Autoestimua garatzea, hau da, norbere buruaren gaineko balioespen positiboa eta errealista (dimentsio afektiboa).
- Autonomia edo ahalduntzea garatzea, erabaki pertsonalak hartu eta gauzatzeko ahalmen gisa ulertuta, eta norberaren ekintzen eta bizitzaren erantzule izanda (dimentsio konatiboa).

Bestetik, elkarbizitzarako kompetentziaren barruan ere, erreferentzia egiten zaio autokontzeptuaren garapenari: "Adimen emozionala garatzeko aukera handiak ematen ditu ikaskuntza arlo honek. Eguneroko bizitzako egoerak antzezteko aukera ematen digu jolasaren testuinguruak, eta antzeztean bizi dituen egoera askotarikoen bidez, emozioak eta portaera motorra autorregulatzeko aukera izango du ikasleak, baita errealitate-oinarri doitua izango duen autokontzeptua eta autoestimua lantzeko ere. Era berean, autokontzientzia, autokontrola, motibazioa, enpatia eta harremanen kontrola landuko ditu, funtsezko direnak gure nortasuna modu harmonikoan eta orekatuan garatzeko."

Bestelako lanei begira, curriculumetik at, autokontzeptua hobetzeko hezkuntzan eta klinikan esku hartzeko tradizio luzea dago, baina, hezkuntza-proposameneren bolumen handi bat ikuspegi zaharkitu batetik (dimentsio bakarrekoa) egin da, eta ez autokontzeptuaren indarreko kontzeptzio hierarkikotik (Esnaola, Goñi eta Madariaga, 2008). Beranduago aztertuko dira esku hartze hauek.

## 3.2. Arte plastikoak

Artearen eremuak katalogatzeko modu ezberdinak daude, baina lan honetan, gaur egun gehien hedatu den sailkapena erabiliko da: arte musikalak (musika, kantua eta opera), arte plastikoak (arkitektura, pintura eta eskultura) eta arte literarioak (dantza, drama, zinema...); hauen artean, arte plastikoetan zentratuz.

### 3.2.1. Definizioa

Arte plastikoak definitzerako orduan, termino honen osagarri diren bi hitzen esanahia zehaztuko dira lehendabizi. Honako definizio hauek ematen ditu RAEk:

“Arte” hitza latinetik dator: *ars*, *artis* eta hau grekotik: τέχνη *téchnē*, hau da, zerbait egiteko bertutea, prestutasun edo ahalmena. Erdi aroan, arteak liburuetan ageri zen edozein ikaskuntza edo formari egiten zion erreferentzia. Berpizkundean artistak izan ziren “arteak” eta “zientziaren” arteko mugak apurtu zituztenak, baina, ez zen XVIII. mendera arte, estetika eta teknika banatu zirenean, artea praktikotasunaren arabera sailkatu zela. Hala ere, kontuan hartu beharra dago gaur egun “arte” hitzak askoz eremu zabalagoari egiten diola erreferentzia.

“*Plastikoa*” hitza aldiz, latinetik dator: *plastica* eta hau grekotik: πλαστική *plastiké*, alegia, material xaflakorrekin gauzak irudikatzeko edo osatzeko ekintza. Hau horrela, material ezberdinen manipulazio edo transformazioa eskatzen duten arteak sailkatzeko aukera ematen da.

Beraz, arte plastikoen espresioa baliabide-, teknika- eta ezagutza-talde batekin lotu dezakegu, eta arte-maisuak horiek baliatzen ditu bere proposamenak sostengatu eta gauzatzeko. XX. mendean, hainbat programa “arte ederrak” izatetik, “arte plastikoak” izatera igaro ziren edertasunaren kontzeptuak sortutako polemika dela eta. Dena den, arte plastikoak diziplina hauek biltzeko termino egokiagoa bada ere, kanpo geratzen dira diziplinartekotasun lan ugari zinema, argazkilaritza edo antzerkia bezalako eremuak biltzen dituztenak. Hori dela eta, esan bezala, sarritan aurkituko dugu artearen arlo hau “arte bisualen” izendapean (Martinez-Vesga, 2005).

### 3.2.2. Sailkapena

Historian zehar arteek sailkapen ezberdinak jaso dituzte, baina arte plastikoei dagokienez, gehien hedatu den sailkapen hau hartuko da kontuan lan honetan:

<b>Arte plastiko tradizionalak:</b> pintura, eskultura, arkitektura, marrazketa, grabatua.
<b>XX. mendeko arte bisualak:</b> argazkigintza, zinema, arte zinetikoa, arte abstraktua, land art (artea lurrarekin edo lurra bera), hiri-artea, grafitia, performancea.
<b>Arte digitalak edo aro berrikoak:</b> bideoartea (multimedia artea), net.art, arte digitala, fanart eta instalazioak (eskulturaren, pinturaren eta hainbat elementu plastikoren elkarketa espazio jakin baten inguruan).

#### 2. Irudia: Arte plastikoen sailkapena

Sailkapen honen barruan aurkitzen diren hainbat kontzepturen definizioak jasoko dira jarraian, bereziki lan honetan erabiliko direnak.

##### Marrazketa:

Adierazpen grafikoko bitarteko bat da, eta, horren bidez, forma deskribatzen dugu, objektu errealea edo alegiazko objektuena. Marrazki bat egiteko, puntu batetik abiatzen gara, puntu horrek lerro bat sortuko du, lerro horrek bere aldagaiekin forma emango du eta plano batean islatuko da (Zúñiga, 2005).

Marrazketa beti izan da eta izango da jarduera artistikoaren jatorria. Hori dela eta, ikusizko beste arte ia guztien oinarrian integratuta dago. Irudi figuratibo edo abstraktu baten sortze-jarduera orok, bere diskurtso sortzailerako bitarteko plastikoez baliatzen denak, bere barne-ibilbidean marrazkia darama inplizituki. Ezin da alde batera utzi, ideia euskarrira transkribatzeko prozesuan zuzenean parte hartzen baitu; marrazkia da ideia eta haren definizio grafiko edo azalpenaren arteko lotura (Rodríguez-Aranda, 2010).

Haur batek bere pentsamenduak, sentimenduak eta interesak adierazten ditu egiten dituen marrazki eta pinturetan, eta ingurunearekiko duen ezagutza erakusten du, bere adierazpen sortzailearen bidez, hau da, marrazki bakoitzak sentimenduak, gaitasun intelektuala, garapen fisikoa, pertzepziozko jarrera, faktore sortzaile inplizitua, gustu estetikoa eta baita norbanakoaren garapen soziala ere islatzen ditu. Hala ere, horietan ere hobetu egiten dira haurrak jasaten dituen eraldaketa guztiak, hazten eta garatzen den heinean.

### Eskultura:

Ikuspegi tradizionaletik, eskultura adierazpide artistiko bat bezala, irudien hiru dimentsioko irudikapena du helburu. Leon Bautista Albertik bere *De Scultura* tratatuan, naturaren hiru dimentsioko imitazioaren lehen saiakeren motibazioei buruzko gogoeta labur bat egin zuen, artea bere lengoia ezberdinen bidez errealitatearen errepresentazio gisa ulertuz (Bañuelos-Ramón, 2015).

Eskolan modelaketa da eskulturara hurbiltzen den teknika. Teknika honek haurraren koordinazio fina garatzen du eta ukimen-sentsazioak eta hatzetako indar muskularra garatzea ahalbidetzen du. Haurrak modelkatzeko buztina, plastilina edo paper-orea behar ditu; elementu horietako edozeinek nahi, pentsatzen eta irrikatzen duena sortzen laguntzen dio haurrari.

### Grafitia:

Grafitiaren terminoa grezierazko *graphein* hitzetik dator. Gure lexikoan "-grafia" atzikia aurkitzen dugu idazketarekin lotutako hitz askotan, baina Grezia klasikoan marrazkiarekin lotutako ekintzetarako erabiltzen zen. Horrela, grekoaren lexikoaren barruan, *graphein* hitzak "marrazki bat egitea" esan nahi du. Esanahi horrekin batera beste batzuk ere baditu, hala nola "ebakidurak egitea", "grabatzea" edo "zirriborratzea", irudiari idazketari baino erreferentzia handiagoa eginez. Horrela, bere erabilera praktikoa irudi baten bidez ideia bat adierazteko ekintza bezala defini daiteke (Amaro-Murillo, 2018).

Eskola, aniztasuna biltzen duen espazioa da, izaki bakoitza besteari egokitu behar zaio, eta ezarritako arauak islatzeko, grafitiak adierazpide gisa erabil daitezke. Baliabide indartsua da eta bere adierazpen ezberdinetan azaleratzen da, hezkuntza-erakundeetan adierazpen globaleko fenomeno bihurtzeraino.

### Argazkigintza:

Argazkigintza argiaren ekintzaren bidez errealitatearen irudi finkoak azalera sentikor batean edo sentsore batean lortzea ahalbidetzen duen prozedura edo teknika da (RAE, 2018).

Arrazoi onak daude pentsatzeko ikastetxeetako argazki-irakaskuntzak oso bestelako aurpegia eman diezaiokela egungo irakaskuntza-sistemari. Izan ere, eskoletako argazki-prestakuntzak ikaskuntza-trebetasun premiazkoenei lagunduko lieke: pentsamendu kritikoa, pentsamendu sortzailea, komunikazioa eta lankidetzak.


### 3.2.3. Arte plastikoak eta garapena Lehen Hezkuntzan

Jaiotzen garenetik, gizakiak ingurunearekin lotuta gaude, lehen eragin hezitzaileak inguruko nozio tradizioaletatik datoz eta eskola da garapenarekin jarraitzen duen erakundea, errealitatea ulertzeko komunikazio-kanal gisa erabiliz. Sormena prestakuntza sistematikoaren bidez sustatzen da, haur guztiek izaki biologiko eta sozialak diren aldetik, dituzten ezaugarriak garatzeko asmoz. Berezitasun horiek indartu egin behar dira, beren nortasuna eraikitzeko, beren izaera soziala eta gizatiarra alde batera utzi gabe. Hasierako eta eskolaurreko hezkuntza, une egokia da gaitasun desberdinak askatasun osoz sustatzeko. Gaitasun horietan, eduki artistikoa ez da osagarria izan behar, baizik eta etorkizuneko herritarren hezkuntzaren funtsezko zatia. Arte-hezkuntzak, estetikaren gustua bultzatzeaz gain, psikomotrizitate fina garatzen laguntzen du, hezitzaileak zientzia formaletarantz dituen jarrerak agerian uzten ditu, baina garrantzitsuena da behaketa estimulatzeko duela, bere azterketa hasieran sentsopertzepzioetik hasi eta pentsamendu eta irudimen sortzailerara iritsi arte areagotuz (Granadino, 2006).

Adierazpen plastikoa eta bisuala hurrek beren sormen- eta adierazpen-gaitasunak sustatzea ahalbidetzen duen komunikazio-modu bat da. Haurren adierazpen artistikoak, esperimentazio askearen bidez, beren barne-mundua, sentimenduak eta sentsazioak irudikatzeko aukera ematen die, irudimenaren, fantasiaren eta sormenaren bidez, eta, aldi berean, egitura eta baliabide berriak esploratuz (Andueza, Barbero, Caeiro, Silva, García, González eta Torres, 2016).

Jarraian, Lancasterrek (1991) osaturiko grafikoa dago (3. irudia), non era bisual batean artearen arloak ikasleengan egiten dituen ekarpenak azaltzen diren. Honetan alde batetik artearekin zuzenki loturik dauden ekarpenak azaltzen dira, hala nola, haurraren sormen prozesuan laguntzea gaitasun manipulatioak garatuz eta ikasleei arte eginkizunetan parte hartzeko aukera emanez. Bestetik, garapen orokorrari zuzendutako ekarpenak ageri dira. Hauen barnean aurkitzen dira: ikaskuntza positibo eta jarrera egokiak garatzea, lana balioesteko eta arazoak konpontzeko gaitasuna garatzea, akatsetatik zein arrakastetatik ikasteko gaitasuna garatzea eta bakarrik zein taldean lan egiteko gaitasuna garatzea.





3. Irudia Arte Hezkuntza: artearen lanketak haurren gaitasun estetikoak eta ulermena garatzen nola laguntzen duen azaltzen duen grafikoa.

Bestetik, UNESCOren XXX Konferentzia Orokorra proposatu zuen haurren eta nerabeen prestakuntza orokorrean diziplina artistikoak sartzea, hezkuntza artistikoak hurrengo ekarpenak egin ditzakeen aldetik (Garcia-Morales, 2012):

- Ikasleen nortasuna garatzen laguntzen du, emozionalki eta kognitiboki.
- Eragin positiboa du garapen orokorrean, akademikoan eta pertsonalean.
- Sormen-potentziala inspiratzen du eta ezagutzak bereganatzea indartzen du.
- Irudimenaren, ahozko adierazpenaren, eskuzko trebetasunaren, kontzentrazioaren, memoriaren, besteekiko interes pertsonalaren eta abarren gaitasunak sustatzen ditu.
- Norberaren kontzientzia eta nortasuna indartzen ditu.
- Haur eta nerabeei komunikazio- eta autoadierazpen-tresnak ematen dizkie.
- Kalitatezko audientziak sortzen laguntzen du, kulturen arteko errespetua bultzatuz.

### 3.2.4. Arte plastikoak hezkuntza arloan

Artea gozamenerako sortutako elementua bada, garrantzitsua da ikasleei artea ulertzeko erremintak ematea. Aurretik aipatu bezala, eskolak aukera eman behar dio ikasleari arte bisualak ezagutu, esperimentatu eta horien gainean lan egiteko (del Carmen Palópoli, 2005).

Ukaezina da marrazketak haurraren eboluzio-prozesuan duen garrantzia, eta, ondorioz, desiragarria da eskolako ikasketa-planetan sartzea (marrazkia beste forma artistiko-plastiko batzuetara zabal daitekeen forma gisa ulertuz). Horrela, beharrezkoa da haurraren potentziala eta prozesu naturala aprobetxatzea eta arteen heziketara bideratutako programa eta aplikazio didaktikoak ezartzea, ez bakarrik ideia, objektu edo egoeren formalizazioa eta irudikapena ikasi eta hobetzeagatik, baita, pentsamendua lantzeko eta garatzeko ere (Burset, 2017).

Oinarrizko Curriculum Dekretuari begira, arterako konpetentziak honako definizio hau hartzen du: "Hainbat kultura- eta arte-adierazpen ulertzea eta modu kritikoan balioestea, denbora- eta erabilera-testuingurutan, faktore estetikoek pertsonen eta gizartearen bizitzan duten garrantziaz jabetzeko. Era berean, arte-hizkuntzak ezagutzea, eta haien kodeak erabiltzea arte-mezuak ekoitzi eta norik bere burua ekimenez, irudimenez eta sormenez adierazi eta komunikatzeko" eta honen barruan arte plastiko eta bisualei ere egiten zaie aipamena.

Hezkuntza estetikoa ezinbestean lotuta dago hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuekin. Hala eta guztiz ere, eskolen zereginetan duen presentzia desagertu egiten da, nahiz eta, teorian aipatu bezala, arte arloan metodologia didaktikoak martxan jarri, helburu hauek lortzeko: pertzepzioa, behaketa, alfabetatze bisuala eta hausnarketa kritikoa eta estetikoa garatzea irudien esanahi sozialaren aurrean (Gutiérrez eta Fernández, 2018).

Horren ondorioz, kultura bisuala oso pobrea da, eta ikusmolde okerrak ditu arte plastikoak eta bisualak zer diren eta zer irudikatzen dutenaren inguruan, bai maila indibidualean, bai sozialean. Heziketa eta prestakuntza beti dira beharrezkoak eta onuragarriak pertsonarentzat, edozein esparrutan, eta gai da ezagutza-egiturak eta okerreko ikusmoldeak aldatzeko, hain zuzen ere prestakuntza faltagatik eskuratu ahal izan direnak.

Hori garrantzitsua da ikasleentzat beraientzat, prestakuntza-aldian dauden pertsonak diren aldetik. Ikasketetan, jarduera artistikoa eta hortik eratorritako produktuak ulertzeko beste modu batera hurbiltzeko aukera dute, aurretik planteatu gabeko gaiak planteatu eta inguruan duten jakintzaren eta kulturaren esparruari buruzko beren ikusmoldeak birformulatzeko aukera baitute. Ezin da ahaztu, garrantzitsua dela, maisu-maistren lanbidea, ikusmolde horiek transmitituko baitizkiete ikasleei. Arte plastiko eta ikusizkoen inguruan dituzten kontsiderazio pertsonaletan eta sinesmenetan oinarrituko dira irakaskuntzak, horiek beharrezkoak baitira gizabanakoak prestatzeko eta ikasleengan jarrera jakin batzuk sustatu ahal izateko.

### 3.3. Autokontzeptua eta arte plastikoak

Historian zehar hainbat adituk lotu dute emozioen arloa artearekin eta horren inguruko hainbat lan aurkituko daitezke, baina autokontzeptuaren arlora mugitzerakoan, Bajardiren (2015) hitzak aurkituko ditugu: "Planeta honetan agertu zirenetik gizaki guztiek behar eztaba daezin bat dute, " Nor naiz ni?" galderari erantzuna bilatzea".

Norberaren kontzeptu positiboa izateak gizakiengan ahalmen sortzailea sortzen laguntzen du. Gizabanakoak bere ingurunean esperimendu eta sormen lorpenak lortzen dituen heinean, ni positiboaren kontzeptua pixkanaka indartuko da (Franco, 2018). Haur hezkuntzako haurrekin egindako azterlanetan, ondorioztatu egin da sormena garatzeko tresnak erabiltzen dituzten programa psikohezitzaileak egiteak ondorio onuragarriak dituela autokontzeptuan eta sormenean (Franco, 2006).

Horri dagokionez, Guilfordek (1983) autokontzeptuaren eta sormenaren arteko lotura horren alde egiten du, baina ez du zehazten aldagai horietako zein dagoen bestearen aurretik. Subjektuak ingurunearekin esperimendatzen duen neurrian eta lorpen sortzaileak lortzen dituen heinean, bere autokontzeptu positiboa indartu egingo da. Hautabide horri dagokionez, egileen iritzia zatituta dago. Horietako batzuek diote autokontzeptu positibo batek aukera ematen duela sormen-potentziala sortzeko, eta beste autore batzuek diote sormen-gaitasunak bultzatzen duela autokontzeptu positibo baten garapena (Moore, Ugarte eta Urrutia, 1987).

Artearen funtzioetako bat, sentimenduak eta emozioak adierazteaz gain, mundua irudikatzeko ideiak eta moduak komunikatzea da. Gizakiak bere buruari buruzko ideiak ditu, eta ideia horiez jabetzeko modu bat bere adierazpenaren bidez da (era berean, adierazteko modu bat sorkuntza plastikoa izan daiteke). Horrela, adierazpen plastikoak autokontzeptua eraikitzen lagun dezake (Bajardi, 2015).

Poloren (2000) artea ulertzeko moduan, adierazpen artistikoak baliagarriak dira artistarentzat berarentzat "ispilu" gisa, hau da, bere buruari begiratzeko eta elkar ezagutzeko modu gisa. Zentzu horretan, pertsona baten barruraino bidaiatzeko modu bat bere sorkuntza plastikoak behatuz izan liteke. Rodriguezek (2007) bere aldetik, adierazten du hitzik gabeko komunikazioa erabiliz sentimendu pertsonalen adierazpena errazten dela, eta horrek, aldi berean, autoestimua sustatzeko lehen oinarri bat dakarrela. Haren arabera, gizakiak bere burua identifikatzeko eta beste batzuekin identifikatzeko beharra du, eta adierazpen artistikoan tresna bat aurkitzen du.

Haurren eremura mugituz, hainbat azterlan psikologikok adierazpen plastikoak hartzen dituzte heldutasun-mailen arteko erlazioari, pertsonalitate-ezaugarriari eta ulertzeko edo proiektatzeko gaitasunari buruzko analisi-tresnatzat. Ido horretan, haurren artearen irudikapenek duten garrantzia nabarmendu nahi da (Burset, 2017).

### 3.4. Autokontzeptua neurtzeko programak eta galdetegiak

Autokontzeptua arte hezkuntzan, zientzia, gorputz hezkuntza edo hizkuntza bezalako beste arlo batzuk baino askoz gutxiago ikertu da. Hala ere, arte arloan aipagarria da Vispoelek (1993) egindako lana, autokontzeptu artistikoa autokontzeptu akademikoaren barruan ulertuz. Dena den, honen barruan musika izan da gehien aztertu den gaia.

Autokontzeptua neurtzerako orduan, interbentzio programak dira hezkuntza arloan gehien erabiltzen direnak. Hauen bitartez, ikasleek haien autokontzeptuaren maila eta ezaugarriak ezagutzeko aukera dute eta ondorioz, alde batetik gaiaren informazio garrantzitsuena ezagutzeko aukera ematen da eta bestetik, haurren autokontzeptuaren maila ezagututa, autokontzeptua hobetzeko interbentzio modu eraginkorra egiten da.

#### Adimen emozionala - Gipuzkoan emozioak: ezagutu, ikasi, landu, bizi

Garapen emozionalari begira, Gipuzkoako Foru Aldundiak eskola inguruan zein beste esparruetan Adimen Emozionala garatzeko programa bat aurkezten du. Honen helburua emozionalki adimentsua eta berritzailea den lurralde bat sustatzea da. Programa praktikoa hau Gipuzkoako hezkuntza komunitate osoari (3-20 urte) zuzenduta dago ekintza ezberdinen bitartez gaitasun emozionalak lantzeko eta bereganatzeko xedearekin.

Hala ere, autokontzeptua eta artea lotzerako orduan material gehiena galdetegi formatuan aurkitzen da. Galdetegi gehienak psikologia arlotik datoz eta hauen adibide dira jarraian azaldutakoak:

#### Art Self-Perception Inventory (ASPI)

Hezkuntza artistikoko motibazioari eta autokontzeptuari buruzko ikerketen artean, neurketa tresna espezifikorik ez dagoela adierazi dute ikertzaileek. Existitzen den bakarrenetarikoa Art Self-Perception Inventory (ASPI) autokontzeptu artistikoari buruzko galdetegi hierarkikoa da, Vispoelek (1993) diseinatua. Programa honek autopertzepzio artistikoa lau gaitasun eremutan banatzen du: arte bisuala, dantza, musika eta arte dramatikoak.

#### Autokontzeptu Artistikoaren Galdetegia (AUART)

Balerdi-Eizmendiren (2015) hitzetan:

“Autokontzeptu artistikoa norberak dantzan, arte dramatikoan, musikan zein marrazketa eta - pinturan bizi izandako esperientzia eta gaitasunetan oinarrituz eraikitako deskripzioa da eta lau aldagaik neurtzen dute: dantzak, dantzarako gaitasunen hautemateaz; arte dramatikoak, interpretazioan zein imitazioan hautemandako gaitasunen bidez; musikak, bere ekintzetarako hautemandako gaitasunen bitartez; eta marrazketa eta pinturak, euren ekintzetarako zein eskulturarako hautemandako gaitasunen bidez” (Balerdi-Eizmendi, 2015, 196.orr.).

Hau horrela ulertuta, autokontzeptu artistikoaren egitura identifikatu eta lau dimentsiotako egituran sailkatzen du AUART ikerketak. Azterlan honen erakitze prozesuan hainbat autoreren lanak hartu dira oinarri moduan, esaterako aurretik aipatutako Vispoelen (1993), Self Perception Inventory (ASPI) for adults, Goñi, Ruiz de Azúa eta Rodríguez, (2008), autoreen Cuestionario de Autoconcepto Físico (CAF), Fernandez (2011), Cuestionario de Autoconcepto Social (AUSO), Goñiren (2010), Cuestionario de Autoconcepto Personal (APE) eta Psikor ikertaldearen Dimentsioaniztun Autokontzeptuaren Neurgailua (AUDIM) beste batzuen artean (Balerdi-Eizmendi, 2015).

### Torrance Test of Creative Thinking (TTCT)

Sormena ebaluatzeko Torrance Test of Creative Thinking (TTCT) edo Torranceren Sormenezko Pentsamenduaren Testa (1974) hitzezko testa ere bada. Honek hitzean oinarritutako sei ariketa erabiltzen ditu subjektuak sormenarekin lotutako funtsezko hiru buru-ezaugarriak balioesteko: jarioa (subjektuak hitzekin ideia asko sortzeko duen gaitasuna), malgutasuna (planteamendu batetik bestera, pentsamendulerro batetik bestera aldatzeko gaitasuna) eta originaltasuna (begi-bistatik, komunetik edo ezarritakotik urrun dauden ideiak edo irtenbideak emateko gaitasuna). Test hau Lehen Hezkuntzako laugarren mailatik aurrera, taldean aplikatzeko da egokia. Ordura arte, hau da, aurreko urteetan, banaka aplikatzea gomendatzen da (Franco, 2006).

### Autokontzeptu Dimentsionala (AUDIM)

Autokontzeptu Dimentsionala izeneko dimentsio anitzeko galdetegi laburra, autokontzeptu akademikoaren, autokontzeptu fisikoaren, autokontzeptu pertsonalaren eta autokontzeptu sozialaren dimentsioei buruz ikertutakotik abiatutako galdetegi da, Psikor taldeak sortua. 33 item ditu, 25 modu positiboan eta 8 modu negatiboan idatzita. Horiei bost graduko Likert eskalan erantzuten zaie, non 1= faltsua eta 5 = egiazkoa den. Autokontzeptuaren dimentsioak ebaluatzen dituzten 12 eskala ditu, bai eta autokontzeptu orokorra neurtzeko eskala orokor bat ere (Fernández-Zabala, Goñi, Rodríguez-Fernández eta Goñi, 2015).

### Haurren Autokontzeptuaren Pertzepzioa (PAI)

Autokontzeptuaren aldagaia ebaluatzeko, PAI tresnak 5-6 urteko haurren autokontzeptua neurtzen du. 34 item ditu, eta horietako bakoitza marrazki bat da, non haur talde bat dagoen egoera jakin batean (ikastetxean, urtebetetze batean, etab.). Eszenaren barruan, figuretako bat autokontzeptu positibo baten adierazgarritzat jo daitekeen jarduera bat egiten ari da, eta beste batek edo beste figura batzuek jarduera bera egiten dute, baina ñabardura negatiboan (Franco, 2006).

Atal honen hasieran azaldutako programa zein azken galdetegi hauek oinarri hartuta, baina hezkuntza arlora hurbiltzeko helburuarekin, lan honen muina eskolan aplikatzeko programa baten diseinua proposatzea da, hurrengo ataletan aurkeztuko dena.

## **4. Helburua**

Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasleekin autokontzeptua arte plastikoen bidez lantzeko programa baten diseinua proposatzea; bertan autokontzeptu orokorra garatzeko oinarriak finkatu eta dimentsioak zeharka lantzeko jarduera ezberdinak proposatuz.

## **5. Metodoa. Proposamen didaktikoaren diseinua**

### **5.1. Justifikazioa**

#### **5.1.1. Hautatutako gaiaren arrazoiak eta hautatutako adina**

Programa honen helburu nagusia autokontzeptua lantzea eta garatzea da, erreminta bezala arte plastiko eta bisualak erabiliz. Haurren garapenaren aro honetan, aurretik ikusi bezala, ikasleak autokontzeptua garatzen hasten dira eta garrantzitsua da prozesu eta garapen hau egokia izatea. Horretarako eskolan aplikagarria den programa bat aurkezten da jarraian, eskola ikasleentzako eremu ezaguna baita eta hortaz, haien nortasuna eta hizpide den autokontzeptua lantzeko espazio eroso dela uste da.

Arte hezkuntza erabiltzearen arrazoiak, sormenaren bidez landu daitezkeen eremu zabalagatik da. HEZIBERRIN aipatzen den bezala: "Beste ikasgai batzuetan ez bezala, irudiak eta musika beti ageri dira, artistikoak izan edo ez, ikasleen bizitzako alderdi funtsezko askotan; esaterako, emozioetan, nortasunean eta sozializazioan". Arloaren barruan, arte plastiko eta bisualetan zentratzearekin ikasleek egitearen inportantzia goraiatu nahi da, proposatutako jarduera guztietan ikasleek teknika ezberdinen bidez egin beharko baitituzte zereginak.

2. zikloko 5.mailako ikasleei bideratutako proposamena da hau eta programa honek adin horretan autokontzeptua lantzearen beharra ikusten du. Esan bezala, adin horretan ikasleak hasiak dira haien autokontzeptua garatzen baina oraindik ere bidean daude. Gainera, nerabezaroaren atean daude eta aro honetan fisiko zein psikologikoki gertatzen diren aldaketa guztien aurrean, garrantzitsua da autokontzeptua poliki-poliki finkatzen joatea.

#### **5.1.2. Hautatutako etaparen ezaugarriak**

Adin eta etapa bakoitzean, umeei ezaugarri eta gaitasun desberdinak izaten dituzte. Programa hau bostgarren mailako ikasleei zuzenduta dagoela jakinda, 10-11 urte bitarteko umeei hain zuzen ere, garrantzitsua da etapa honetan aurkitzen diren neska-mutilen ezaugarri psikoebolutiboak ezagutzea. Azken finean aurrerago proposatuko diren gaiek eta ariketek ezaugarri hauetara egokituak egon beharko dute, umearen garapen osoa ematera aldera (Flavell, 1976).

Garapen **kognitiboari** dagokionez Jean Piageten fase kognitiboen teoriaren arabera, eragiketa zehatzen estadioan (7-12 urte) kokatzen da haurra. Etapa hau, funtsean, haurrak pentsamendu logikoa garatzen duelako bereizten da, baina modu abstraktuan egitera iritsi gabe, eta aurreko etapako (eragiketa aurreko aldia) pentsamendu egozentrikoa pixkanaka murrizten duelako.

Ikasle hauek oinarrizko trebetasun instrumentalak (irakurketa eta idazketa, batez ere) bereganaturik dauzkate eta trebetasunok euren inguruan eta kulturen aplikatzeko gaitasuna dute. Honekin batera, gauzak eta fenomenoak (kopurua, luzera, distantzia, mugimendua...) hautemateko eta bereizteko gaitasunak garatzen dituzte; horrek, errealitateaz eta gauzen egonkortasunaz, ezaugarriez eta aldaketez konturatzea eta kontzientzia hartzea dakar, adibidez erregulartasun eta zikloen funtzionamendua (urarena, landareena..) ulertzea. (Piaget, 1976).

**Maila moral eta etikoari** dagokionez, Kohlbergek (1992) bere teoriarekin hiru maila zabal ezarri zituen, aldi berean bi fasetan banatzen direnak. Teoria horren arabera, 10-11 urteko gure ikasleak bigarren mailan daude, moral konbentzionalaren mailan. **Maila** hau, bi estadiotan banatzen da:

Lehenengo fasean, ikasle gehienak egongo dira, espektatibena, harremanena eta pertsonen arteko adostasunarena da. Une honetan, helburua besteek dituzten itxaropenak betetzea da, ez diete huts egin nahi axola zaizkien pertsonen: gurasoei, irakasleei eta berdinei. Baina, beren helburua lortzeko, beren interes pertsonalak sartzeko dira jokoan.

**Maila** honetako bigarren fasea sistema soziala eta kontzientzia da, hau da, gizabanakoa gizarteaz eta gizartearen barruan duen posizioaz interesatzen den unea. Hori dela eta, helburu nagusia gizarteak funtziona dezan ezarritako arauak betetzea da.

**Arlo fisiko edo psikomotorrari** dagokionez, ikasleek pubertaroaren berezko aldaketa hormonalak izango dituzte: haztea, muskulatura handitzea, ilea agertzea, etab. Azken batean, haurrak pixkanaka egonkortzen joango den doikuntza-aldi batean daude, gorputzaren irudi berria sortu arte. Bere gorputz-eskemen azken etapa honetan, eta bere gorputz-trebetasunak biziko dituen aldaketa guztiak direla eta, mugimendu jakin batzuetan baldar agertuko dira (Zorzano, 2018).

Adin horretan ezinbestekoa da ikasleen maila **afektiboa** kontuan hartzea, familiarekin, irakasleekin eta parekoekin pertsonen arteko harremanak oso garrantzitsuak baitira haien garapenerako. Adin horretan, hain zuzen, adiskidetasunak garrantzia handia hartzen du; izan ere, harreman horietan aurkitzen dituzte ikasleek beren ezaugarriak eta pertsonalki ezagutzen dute elkar. Ondorioz, irudi pertsonal eta nortasunaren garapenari dagokionez, identitatea finkatu, euren eta besteen gaitasunak eta mugak onartu eta autokontzeptua eta autoestima sendotzen dituzte (Zorzano, 2018).

Azkenik, **hizkuntza-mailaren** harira, Piagetek adierazten du garapen hori funtsezkoa dela haurren bilakaera kognitiborako. Hizkuntza dagoen errealitatea ulertzeko eta barneratzeko tresna bat da. Horretarako, funtsezkoa da kanpoko estimulazioa. Adin horretako haurrek hiztegia zabaldu eta sintaxia hobetuko dute, baina, batez ere, hizkuntza erabiltzen dute inguruko pertsonekin elkar-eragiteko.

## 5.2. Arazo-egoera

Testuingurua: Programa honen diseinuari ekin aurretik, 5.mailako hainbat irakasleri galdetegi bat pasatu zaie (ikus 1.eranskina) eskoletan autokontzeptuaren garapena nolakoa den ikusteko eta gaiaren egoera aztertzeko. Hauetan jaso denaren arabera, eskoletan arlo emozionala lantzen da eta bada autokontzeptuaren lanketa ere, baina gehienetan zeharkakoa izaten da. Ikasleek emozioak adierazteko beharra izaten dute eta ezinbestean jaramon egin behar zaio. Kasu horietarako hainbat jarduera edo lantzeko modu dituzte gelan eta beharraren arabera gehiago edo gutxiago erabiltzen dituzte. Horrekin batera, irakasleek azpimarratu egiten dute jarduera horiei esker, emozioen arloan autonomia garatzen joaten direla. Autokontzeptuari begira, ariketa ezberdinak egin izan dituzte eta kasu batzuetan gelakideen arteko irudiak zeharo aldatu direla adierazten dute. Bestetik, kooperazioa azpimarratzen dute autokontzeptua lantzeko bide bezala, metodologia hori erabiltzerakoan erantzun positiboak jaso dituztela diote. Kasu hauetan, hezkuntza emozionalaren arloan beste gai batzuen inguruko lantegiak egin izan dituzte eta ikasleek gustura hartu dute parte, beraz, eroso sentitzen dira emozioekin lan egiten eta horrek lana eta garapena asko aberasten duela esan daiteke.

Familiaren inguruan ere galdetu zaie eta bat etorri dira haren garrantzia aipatzerakoan. Familia ikaslearen eredu dela aipatu dute eta umearen errealitatearen parte izateaz gain, errealitate hori inork baino hobeto ezagutzen dute. Beraz, garrantzitsua da haiekin kontaktzea.

Irakasleen ustetan, beharrezkoa da autokontzeptua lantzea, ikasleek haien jokabideen ardura izaten ikasi behar dutela diote, elkarbizitzarako ezinbesteko elementua baita. Irakaslegoak dioenez, denbora gehiago eskaini beharko litzaioke autokontzeptuaren lanketari pertsona osoak izatera iritsi ahal izateko. Izan ere, ez dute autokontzeptuari bideratutako ekintza zehatzik egin. Arte hezkuntzaren inguruan galdetu zaienean, sentimenduak adierazteko bide bezala ikusten dute eta gainera alderdi indibidualaz gain, taldearen bilakaera ekar dezakeela ere esan dute. Erantzun dutenaren arabera, arlo akademikoan zailtasun gehiago dituzten hainbat ikasle arte hezkuntzan ondo moldatzen dira eta oso interesgarria da gai hau autokontzeptua lantzerako orduan.

Honen aurrean, autokontzeptuaren lanketa falta hau hobetzeko programa baten diseinua proposatzen da. Horretarako, ikasleei erakargarria egiteko nahian eta hobekuntzak aurkituko direlakoan, arte plastiko eta bisualak erabiliko dira tresna moduan aurkitutako hutsuneari aurre egiteko.

Arazoa: Gai izango al gara gure autokontzeptua ulertzen eta hobetzen arte plastiko eta bisualen bidez?

Xedea: Arte plastiko eta bisualen bitartez, autokontzeptua ulertu eta hobetzeko ekintza ezberdinak egitea.

Zeregina: Artea tresna moduan erabiliz autokontzeptura hurbiltzea eta horri esker helburua lortzea.



## 5.3. Curriculumarekin lotura

Jarraian aurkeztuko den informazioa aurretik aipatutako DEKRETUAN dago oinarrituta. Dokumentu hauek hartuta, oinarrizko konpetentziak, etapako helburuak, edukiak eta ebaluazio irizpideak zehaztu eta hauetan sakonduko da.

### 5.3.1. Oinarrizko konpetentziak

HEZIBERRIK bi konpetentzia moten garapena sustatzen du, alde batetik oinarrizko zehar konpetentziak eta bestetik, diziplina barruko konpetentziak.

#### Oinarrizko zehar konpetentziak

Oinarrizko zehar-konpetentziak edo konpetentzia orokorrak, bizitzako esparru eta egoera guztietan (pertsonal, sozial, akademiko era lanekoetan) arazo egoerak eraginkortasunez ebazteko behar diren konpetentziak dira. Arlo edo ikasgai guztietan indartu eta landu behar dira eta bizitzako esparru eta egoera guztietan integratuz eskuratzen eta erabiltzen dira.

Bestelako zehar konpetentziak ere landuko badira ere, programa honetan honako hauek nagusituko dira:

- 1- **Hitzezko eta hitzik gabeko komunikazio eta komunikazio digitalerako konpetentzia:** Hitzezko eta hitzik gabeko komunikazioa eta komunikazio digitala modu osagarrian erabiltzea da; egoera pertsonal, sozial eta akademikoetan, era egoki eta eraginkor batean komunikatu ahal izateko.
- 2- **Elkarbizitarako konpetentzia:** Pertsonen arteko, taldeko eta komunitateko egoeretan elkarrekikotasun-irizpideekin parte hartzea da; gainerako pertsonen aitortuz nor bere buruari aitortzen dizkion eskubideak eta betebeharrak, eta horrela, ekarpen bat egitea norberaren eta guztion onari.
- 3- **Ekimenerako era espiritu ekintzailerako konpetentzia:** Ekimenez jardutea eta prozesu ekintzailea modu ausart eta eraginkor batean kudeatzea da; egoera eta testuinguru pertsonal, sozial, akademiko eta lanekoetan, ideiak ekintza bihurtzeko daitezkeen.
- 4- **Norbera izaten ikasteko konpetentzia:** Bizitzako hainbat egoera eta esparrutan norberari sortzen zaizkion sentimenduak eta pentsamenduak hausnartzea eta egindako ekintzetaz gogoeta egitea da; ekintza hauen gainean egiten den balioespenari erreparatuta, jarrera hauek sendotzea edo doitzea. Azken finean, pertsonaren autorrealizaziorako bidea egitea bere dimentsio guztietan, etengabeko hobekuntzaren bidez.

## Oinarrizko diziplina barruko kompetentziak

Programa honetan, arte plastiko edo bisualak erabiliko dira lan egiteko baliabide edo tresna moduan eta beraz, arterako kompetentzia izango da nagusituko dena. Honako **definizio** hau jasotzen du:

*ARTERAKO KONPETENTZIA: Hainbat kultura- eta arte-adierazpen ulertzea eta modu kritikoan balioestea, denbora- eta erabilera-testuingurutan, faktore estetikoek pertsonen eta gizarteen bizitzan duten garrantziaz jabetzeko. Era berean, arte-hizkuntzak ezagutzea, eta haien kodeak erabiltzea arte-mezuak ekoitzi eta nork bere burua ekimenez, irudimenez eta sormenez adierazi eta komunikatzeko.*

Hurrengo **osagaiak** biltzen ditu:

1. Hizkuntza artistikoak adierazteko eta komunikatzeko baliabideak direla ulertzea, haiek norberaren arte-ekoizpenetan erabiltzea, eta hizkuntza horiek obra artistiko eta kulturaletan identifikatzea.
2. Arte-produktuak era pertsonal eta arrazoituan sortzea hainbat egoera eta bizi-esparrutan, emozioak, bizipenak eta ideiak adierazteko, irudikatzeko eta komunikatzeko.
3. Dagozkien denboran eta kulturaren interpretatzea arte-adierazpenak eta -ekoizpenak, eta horietan dauden funtzioak eta erabilerak aztertzea eta bereiztea, pertsonen bizitzan duten esanahia eta eragina ulertzeko.
4. Gogoetaren eta kritikaren bidez balioestea ondare artistiko eta kulturaleko elementuak, herrien nortasunaren eta kulturen oinarri diren aldetik, herrien arteko hartu-emanaren, kulturen arteko elkarriketaren eta esperientzia partekatuen harian.

Arterako kompetentziaren barnean **ezaugarriei** dagokienez, norberaren eta bestelako pertsonen ideiak eta sentimenduak lantzeko baliagarria dela azpimarratu behar da. Arterako kompetentzia baliagarria da adierazpenak egin eta komunikatzeko, era ezberdinetako errealitate eta ekoizpenak ulertzeko gaitasuna landuz. Ezaugarri hauek ondo biltzen dute programa honetan landu nahi dena.

Autokontzeptuari dagokionez, edota hezkuntza emozionalari dagokionez, zeharka lantzen bada ere, DEKRETUAK ez du diziplina barneko kompetentziarik zehazten.

### 5.3.2. Etapako helburuak

Unitate didaktikoarekin lortu nahi ditugun **helburuak, edukien** bitartez garatuko dira, modu horretan **oinarrizko kompetentziak** lortuz. Hau da, elementu guztiak **elkarreraginean** egon behar dute, edukiak helburuak lortzera bideratuta daudelako eta ondorioz ikasleek oinarrizko kompetentziak eskuratzea dakarrelako. Eskuratze maila hau **ebaluazio irizpideen** lorpen mailak adieraziko digu, horretarako lorpen adierazleak erabiliz.

Esan bezala, DEKRETUAK ez du autokontzeptuaren inguruko helburu zehatzik azaltzen, baina zeharka bada lanketa horren aztarna, beraz, horretan oinarrituta helburu hauek zehaztuko dira programa honetan:

1. Autokontzeptua garatzea, dimentsio ezberdinetan zeharka lanketa eginez.
2. Norberaren izaera eraikitzeke prozesuan laguntzea prozesu hori indartuz eta lanketa sakona eginez.
3. Autokontzeptua lantzerako orduan alderdi positibo zein negatiboei arreta jartzea. Lanketa garapen global eta osatu batera bideratuta egon dadin eta ikasleen errealitatera ahalik eta gehien hurbiltzeko.
4. Autokontzeptu positiboa lantzearekin batera autonomia eta ahalduntzea garatzea, norbera bere ekintzen erantzule izan dadin.
5. Ikasleei euren burua aztertzeke denbora eskaintzea.

Arte arloan, DEKRETUAK ezartzen dituen etapako helburuen barruan honako hauek dira programa honetan jarraituko direnak:

1. Arteak eta kultura bisual eta musikalak norberaren ideiak, sentimenduak eta bizipenak komunikatzeko eta espresatzeko ematen duten aukera ugarietaz ohartzea, eta horretan, komunikazio-gaitasunean, pentsamendu kritikoan eta autokonfiantzan aurrera egitea.
2. Trebetasun intelektualez, ekimenaz, irudimenaz eta sormenaz baliaturik, norberaren nahiz besteen sentimenduetan edo artelanetan oinarritutako ideiak birsortzea, norberaren sormen-lanak aberasteko.
3. Arte-jarduera kolektiboetan parte hartzea, jarduera horietan norberak arduraz jokatzea, eta denen ekimen eta ekarpenak balioestea, taldean arte-lanen bat egitea helburu duten ekimenetan hain garrantzitsuak diren kooperazio-trebetasunak lantzeko.
4. Norberak egindako artelanetan konfiantza izatea, lanean emandako denboran norberak egindakoaz gozatzea, eta horrek guztiak norberaren eta talde osoaren hazkunde pertsonalari egiten dion ekarpen itzelaz jabetzea, autoestimuan aurrera egiteko eta norberaren ideien eta sentimenduen berri emateko gaitasuna hobetzeko.

### 5.3.3. Edukiak

Hezkuntza helburuek hezkuntza zertarako den erantzuten duten moduan, curriculum-edukiek **zer ikasi/irakasteari** erantzuten diote. Aukeratzten diren edukiek baldintza batzuk errespetatu beharko dituzte, hala nola, ikaslearen garapen mailari egokituak egotea, helburu didaktikoak betetzen laguntzea edo inguruaren baldintzei egokitzea.

Autokontzeptuak eduki multzo zehatzik hartzen ez badu ere, DEKRETUKO zeharkako lanketan oinarrituta hurrengo edukiak diseinatu dira proposamen honetarako:

#### **Autokontzeptua garatzea.**

- Autokontzeptua garatzeko elementuak identifikatzea.
- Autokontzeptu indibidualaz gain, sozialaz ohartaraztea, komunitatearen parte izatea.
- Nortasuna garatzeko prozesuan autonomia erakustea.
- Norbanako bezala euren burua ezagutzeaz gain, talde kontzeptua ere osatzea.
- Taldekideen errealitateak eta autokontzeptuak ere aztertu eta onartzea.
- Autokontzeptua osatzeko, ikasleek haien ingurua ezagutzea.
- Haien buruekiko ikuspegi positiboa izatea, baita errealista ere, alderdi positibo zein negatiboak identifikatuz.

Arterako konpetenziaren barruan, 5 eduki-multzo aurkitzen dira, baina jarraian programa honetan gailentzen direnak soilik ageri dira, laburtuta. DEKRETUAN 1. eta 5. multzoei dagozkien hurrengo bi blokeak:

**1. Eduki komunak:** Arlo eta ikasgai guztietan komunak diren oinarritzko zehar-konpetentziekin lotutako edukiak. Eduki multzo honetako prozesu eta jarreraren xede dira:

- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa, hitzik gabekoa eta digitala).
- Norberaren jokabide morala erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

## 2. Arte-adierazpen plastiko eta bisualak ekoiztea, espresatzea eta sortzea

- Teknika mistoak erabiltzea obrak sortu eta ideiak eta sentimenduak adierazteko.
- Proposatutako edukiak lantzeko erabiltzea materialak eta teknikak, eta egindako aurkikuntzak adierazpen plastikoetan erabiltzeko interesa izatea.
- Koloreen ezaugarri eta erlazioen gaineko jakintza oinarritzako erabiltzea.
- Proiektu banakoak eta taldekoak planteatzea, askotariko gaiak ikertu eta horien gaineko soluzio plastikoak bilatzeko.
- Hizkuntza plastiko eta bisualaren elementuak antolatu eta haiek erabiltzeko modu berriak ikertzeko gogoia izatea.
- Gainerako pertsonen iritziekiko eta lanekiko errespetua eta interesa adieraztea, norberaren ezagutze-prozesuaren parte diren aldetik.
- Jarrera originala eta berezkoa izatea, eta, artelanak sortzean, modu pertsonal eta autonomoan adieraztea ideiak, sentimenduak eta bizipenak.
- Norberak artea landu eta egiteko duen ahalmenean konfiantza izatea eta norberaren eta besteren ekoizpenak balioestea.

### 5.3.4. Ebaluazio irizpideak eta lorpen-adierazleak

Curriculumarekin bukatzeko, ebaluazio irizpide eta lorpen adierazleei dagokienez, DEKRETUAK, ebaluazioaren kontzeptua bi erreferenteen bidez proposatzen du. Alde batetik ebaluazio irizpideak daude, ikasleak **zer ikasi** duen balioesteko irizpideak edo erreferenteak direnak. Bestetik, lorpen-adierazleak, **jokabide behagarri** bihurtzen dituzte ebaluazio irizpideak, eta ondorioz, haiek dira ebaluazioaren erreferentzia gailena.

Autokontzeptuari dagokionez, hezkuntza emozionalak ez du konpetentzia edo bloke zehatzik curriculumean, beraz, zeharkako ideak kontuan hartuta, honako hauek dira proposamen honetarako sortu diren ebaluazio irizpideak eta lorpen adierazleak (ikus 6.eranskina):

#### 1. Autokontzeptuaren garapen prozesua naturala izatea (1., 2. eta 4. ebaluazio irizpideak).

- Autokontzeptuaren garapen prozesua jarraitu du.
- Gogotsu agertu da prozesuan zehar.
- Jardueretan autonomia erakutsi du.
- Gai izan da alderdi positibo zein negatiboak lantzeko.

#### 2. Dimentsioen zeharkako lanketa egitea (5. ebaluazio irizpidea).

- Dimentsio emozionala landu du, emozioen identifikazioaren bidez.
- Autokontzeptuak arlo akademikoan duen eraginaz ohartu da.
- Dimentsio fisikoaren eraginaz ohartuda.
- Dimentsio sozialari aipamen berezia egin dio lanketan.

### **3. Autokontzeptua taldean lantzea (6. eta 7. ebaluazio irizpideak).**

- Taldekideen autokontzeptuaren garapen prozesua errespetatu eta ulertu du.
- Besteen espazio eta sormen lanak errespetatu ditu.
- Norbanakoaren autokontzeptua garatzeaz gain taldekoan ere lan egin du.

Arte hezkuntzari dagokionez, jarraian programa hau 2.ziklora zuzenduta dagoen heinean, ziklo horretako ebaluazio irizpide eta lorpen-adierazleak biltzen dira. Proposamen didaktiko honetan gehien lantzen direnak solik ageri dira, hori dela eta, dokumentu ofizialean bestelako zenbakiak jasotzen dituzte.

### **1. Hizkuntza artistikoak komunikazio-bide eta espresibide unibertsaltzat hartzeko gai izatea, eta hizkuntza horiek modu arrazoituan erabiliz egitea bere arte-ekoizpenak (3.ebaluazio irizpidea).**

- Hitzez eta idatziz adierazten ditu arte-ekoizpen bisual eta musikal askotarikoek sorrarazten dizkioten emozioak eta sentimenduak.
- Arte-ekoizpenen eta adierazpenerako eta komunikaziorako xedeen arteko loturak egiten ditu.

### **2. Bere arte-ekoizpenetan irudimenez eta ekimenez jokatzeari bere ideien, sentimenduen eta bizipenen berri emateko (3.ebaluazio irizpidea).**

- Aldaketak egiten ditu elementu eta baliabideetan, bestelako esanahiak lortzeko.
- Irudimena du bere bizipenak eta egin dituen aurkikuntzak adierazteko.

### **3. Landu beharreko proiektuaz gogoeta egiteko gai izatea eta beraren eta talde osoaren interesak kontuan hartzea zereginak antolatzean (3.ebaluazio irizpidea).**

- Gogoan du zer lan egin behar duen eta lan hori nola egin hausnartzen du.
- Akatsak hautemanez gero, prozesuak berrabiarazi edo berrantolatzen ditu.
- Egoki antolatzen eta justifikatzen ditu bere proiektuen emaitzak.

### **4. Arte-adierazpenen bidez zenbait ideia, gertaera, esperientzia eta bizipen sormenez adieraztea, eta horretan, aintzat hartzea egiten dituen ekarpenek bere buruaren eta talde osoaren hazkunde pertsonala dakartela (3.ebaluazio irizpidea).**

- Arteen bidez desinhibizioz adierazteko jarrera erakustendu.
- Ideiak berregiten ditu, askotariko baliabide teknikoak eta espresiboak erabilia.
- Ideia pertsonalen ekarpena egiten du, konfiantzaz, auzi artistikoak erabakitzeko.
- Eginaren ekinez sortutako produktuek dakarten satisfazioa bizi du.

Aurrerago, 5.6.EBALUAZIOA atalean, programa honetan erabiliko den ebaluazioa eta tresnen inguruan sakonduko da.

## 5.4. Metodologia

### Metodologia eta irakats-estiloa

Sekuentzia didaktiko honetan, arte plastiko eta bisualen bidez, ikasleek haien autokontzeptuaren inguruan ikasi, lan egin eta hausnartzeko aukera izango dute.

Ikuspegi konstruktibista batetik abiatuz, metodologia aktibo ezberdinak erabiliko dira, edozein testuinguru eta egoeratan autokontzeptuaren ezagutza esanguratsu eta funtzionala lortzeko. Horretarako ikasleak protagonistak izatea bilatuko da jarduera manipulatioak erabiliz.

Jarduera gehienak banaka egingo dira norberaren autokontzeptua garatzeari begira, baina adin honetan ezinbestekoa da berdinen arteko erreferentzia eta beraz, hainbat jarduera taldeka egingo dira. Gainera garrantzitsua da talde bezala autokontzeptua ere lantzea. Sarritan, banaka hasi eta talde txikitara igaroko dira ikasleak amaieran talde handian lan egingez. Dena den, jarduera bakoitzean jarraitu beharreko prozedura zehaztuta dago.

### Espazio eta denbora

Denboraren aldetik, jarduerak asteko ordu berean egitea proposatzen da eta espazioari dagokionez, ohiko gelan zein beste gela batean egiten daiteke, beti ere ikasleek leku nahikoa duten eta beharrezko baliabideak biltzen dituen espazioa baldin bada. Arte gelaren bat badago egokia izan daiteke programa lantzeko.

### Irakaslearen (gidariaren) papera

Garrantzitsua da programa aurrera eramango duen irakasle edo heldua konstantea izatea, berarekin giro eta konexioa hurbilagoa izateko. Tutorea izan daiteke jardueran esku hartzeko pertsona heldu egokiena.

### Taldeko esku-hartzea zuzentzeko iradokizunak

Programaren koordinatzaileak jarduerak era egokian aurrera eramateko hona hemen hainbat iradokizun:

Programarekin hasi aurretik, garrantzitsua da ikasleei zer egingo duten azaltzea, programak dituen helburuak aurkeztea, beti ere, ikasleentzako egokia den hizkera erabiliz. Saioak aurrera eraman aurretik jarduerak ondo prestatu behar dira, egitura ondo finkatuz eta beharrezko materiala aldeztu aurretik prestatuz. Gainera, jardueretan ezarritako helburuak lortzeko argibide egokiak eman behar dira interpretazio okerrik egon ez dadin.

Taldeak egiterakoan, ikasleei egiten uzteko aukera dago edo irakasleak antolatzeko aukera. Taldearen arabera izango da hau baina, gelakideen arteko harremanaren arabera, interesgarria izan daiteke taldekatzeak aldatzen joatea, ikasleen arteko harremana eta haien arteko ezagutza indartzeko.

Programa honen barruan gogoetak garrantzia berezia hartzen du eta inportantea da ondo bideratuta egotea. Hausnarketa fase honetan, ikasleek ezarritako helburuak bete dituzten ikusiko da eta irakaslearen zeregina da momentu hau egokitasunez gidatzea. Heldua da taldearen gidaria, eta beraz, ondorioak antzeman, azpimarratu eta sustatu behar ditu. Horretarako esku hartzeko modu ezberdinak daude, galderen bidez, eztabaiden bitartez, egindakoaren analisiaren bidez, laburpenak eginez eta abar. Atal honetan, kontuz ibili beharra dago iritzi pertsonalekin, ez da komeni ikasleek adierazitakoa epaitzea. Egoera horiek ondo bideratzeko, helduak gai jakin horri buruzko informazio objektiboa edo datu argigarriak erabili ditzake.

Arlo metodologikoari amaiera emateko hainbat gomendio luzatzen dira jarraian programaren garapena egokia izan dadin. Jardueretan, ikasleen arteko errespetua ezinbestekoa da, gertakari edo jarrera negatiboak identifikatuz. Autokontzeptua garatzea da programaren helburua eta horretarako errespetuaz gain garrantzitsua da ikasleen arteko entzute aktiboa sustatzea. Gainera, ikasle guztien parte hartze aktiboa eman dadin, ezinbestekoa da jarduerak egokitasunez azaltzea eta gelan giro eroso bat sortzea.

## 5.5. Saioen planifikazioa

### Programa nola erabili

Programa, hezkuntza-helburu baliagarriak lortzeko prestatzen den ekintza-plan sistematiko eta antolatua da. Baina ulertu beharra dago ikastetxe eta gelaren arabera moldaketak beharrezkoak direla. Honen aurrean, programak hurrengo pausuak jarraitzea gomendatzen du, proposatutako jardueri ahalik eta etekin gehien ateratzeko:

1. Testuinguruaren analisisa: ingurumen-testuingurua, egitura, formatua (iraupena), baliabideak, irakasleen egoera, ikastetxearen giroa...
2. Beharrak identifikatzea: hartzailak, helburuak...
3. Diseinua: oinarriak, helburuak, edukiak, jarduerak, epeak, hartzailak, ebaluazio-irizpideak eta kostuak.
4. Gauzatzea: jarduerak martxan jartzea. Aldaketa posibleak kontuan hartzea.
5. Ebaluazioa: ez da aski balorazioak eskaintzearekin, ebaluazioa oinarritzko alderdietako bat da.

### Saioen jarraitasuna

Saioen antolakuntzari dagokionez, 6 saioko sekuentzia proposatzen da. Saio bakoitza egun ezberdin batean egingo da. Saioak aurrera eramateko astean ordu bat erabiltzea gomendatzen da, egungo ordutegi ohikoena kontuan hartuta tutoretza zein arte orduak erabili daitezke, taldekide guztiak egoten baitira gelan. Modu horretan



programak 6 asteko iraupena izango luke. Dena den, guztiz moldagarria da planteamendu hau.

### Saioen egitura

Saio guztiek egitura berdina jarraituko dute, bakoitzaren barruan momentu bat egongo da aurretik landutakoa aipatzeko eta ondoren eguneko jarduerarekin jarraituko da; egunean markatutako helburuak lortzeko jarduerak egingo dira eta amaieran atal bat utziko da egindakoaren inguruan hausnartzeko. Eranskinetan saio fitxak ageri dira saio bakoitzeko jardura guztiak zehaztasunez azalduz (ikus 2.eranskina).

PROGRAMAREN LABURPENA	
Programaren iraupena	6 saio (astero saio bat)
Saioen egitura	Aurreko saioa gogora ekarri
	Eguneko lanketaren garapena
	Egindakoaren inguruko hausnarketa

### 4. Irudia: Programaren laburpena

KRONOGRAMA						
	ASTEA					
	1	2	3	4	5	6
<b>Nolakoa naiz ni?</b> Autokontzeptu orokorra.						
<b>Nire burura ezagutzen al dut?</b> Nire sentimenduak aztertzen.						
<b>Nor naiz ni?</b> Nire ingurua ezagutzen.						
<b>Zertan naiz ona?</b> Autokontzeptuaren alderdi positiboa.						
<b>Zertan hobetu behar dut?</b> Hobetzeko alderdiak identifikatu.						
<b>Nolakoak gara?</b> Taldearen autokontzeptua.						

### 5. Irudia: Kronograma

SAIOEN LABURPENA	
HELBURUA	JARDUERA NAGUSIAK
<p><b>1. <u>Saioa: Nolako naiz ni?</u></b> Marrazketaren bidez nork bere burua ezagutzeko lehenengo pausoak ematea, gerora ikasleen arteko berdintasun eta ezberdintasunak identifikatzeko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Marraztu zure burua.</li> <li>- Antzekotasunak eta ezberdintasunak.</li> </ul>
<p><b>2. <u>Saioa: Nire burua ezaqutzen al dut?</u></b> Koloreen bidez sentimendu ezberdinak identifikatzea eta egunerokotasunarekin lotzea, autokontzeptu emozionalean zentratuz.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Musikarekin margotzen.</li> <li>- Noiz sentitzen dut...</li> </ul>
<p><b>3. <u>Saioa: Nor naiz ni?</u></b> Aurreko saioko autokontzeptu orokorrean gehiago sakontzea ikasleen testuinguruan zentratuz.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Zer da garrantzitsua niretzako?</li> <li>- Collageak sortzen.</li> </ul>
<p><b>4. <u>Saioa: Zertan naiz ona?</u></b> Autokontzeptu orokorraren barruan alderdi positiboak identifikatzea eta norberaren iragarkia sortzea. Autokontzeptuaren barruan dimentsio ezberdinak lantzeko aukera egongo da, alderdi positibo horiek edozein dimentsiotakoak izan baitaitezke.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Zer eskaini dezaket? Iragarkiak sortzen.</li> <li>- Gure gelako orrialde horiak.</li> </ul>
<p><b>5. <u>Saioa: Zertan hobetu behar dut?</u></b> Buztingintzaren bidez autokontzeptu orokorraren barnean hutsuneak identifikatzea eta aurre egiteko gai izatea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Zertan hobetu behar dut?</li> <li>Buztinarekin irudikatzen.</li> <li>- Nola lortu dezaket hori?</li> </ul>
<p><b>6. <u>Saioa: Nolakoak gara?</u></b> Autokontzeptu orokorra gaindituz, graffiti bat sortzea eta horrekin dimentsio sozialean lanketa egitea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ezberdinak gara eta horrek aberasten gaitu.</li> <li>- Gure grafitia.</li> </ul>

## 6. Irudia: Saioen laburpena

### 5.6. Ebaluazioa

#### 5.6.1. Ikasleen ebaluazioa

Ebaluazioa hezkuntzatik banatu ezin den funtsezko osagaia da, proposatutako helburuak zenbateraino bete diren aztertzea helburu duena. Baita ere, horietako bakoitzean zenbaterainoko garapena lortu duten ikustea. Beraz, ebaluazioa ezin da alderdi edo une bakarrekin lotu, hezkuntza prozesu osora zabaldu behar baita, era global eta sistematikoan, azken emaitza ere kontuan

hartuta. Hori dela eta, ebaluazioa hezigarria izan behar du, indibidualizatua, etengabekoa, ikasleen premiak eta aukerak detektatzera bideratuta.

Programa honetan zentratuz, ebaluazioa ezinbestekoa da ezarritako helburuak bete diren frogatzeko. Psikologia arloan ari garenez, autokontzeptuaren inguruan zehazki, zaila suertatu daiteke ebaluazioa aurrera eramatea eremu subjektiboa izan baitaiteke. Hala ere, oso aberasgarria da eta programaren etengabeko hobekuntza sustatzen du, bere analisi, exekuzio eta emaitzaren indargune eta ahulguneak identifikatzen laguntzen baitu.

Ikasleen egitekoa ebaluatzeaz gain, garrantzitsua da programa bera ebaluatzea eta horretarako ere erabiliko da ikasleen ebaluazioa, haien erantzunetan islatuta geratuko baita haien programaren inguruko iritzia.

### **5.6.2. Ebaluazio tresnak**

Programa honetan hainbat motatako ebaluazioak eramango dira aurrera:

Alde batetik, ikasleen autoebaluazioa bultzatu nahi da eta horretarako *egunerokoa* (ikus 3.eranskina) erabiliko da tresna moduan. Baliabide honetan ikasleek saio bakoitzean gertatutako guztia bilduko dute hitz zein marrazkien bitartez. Horretan, izan diren jarrerak, emozioak, adierazi diren edukiak eta jarduera bakoitzaren emaitzak (marrazkiak, collageak...) jasoko dira. Egunerokoak eskaintzen duena baino espazio gehiago behar bada, produktuen argazkia egitea gomendatzen da. Egunerokoaren bidez ikasleak hausnarketara bultzatu nahi dira.

Taldeka burutzen diren jardueretarako, ko-ebaluazioa erabiliko da, *taldean lan egiten* (ikus 4.eranskina) deituriko fitxaren bidez, non taldeko partaideen artean egindako lana ebaluatuko duten. Tresna honekin ikasleek autonomia eta zintzotasuna erakutsi beharko dute eta horretarako oso garrantzitsua da argibideak eta azalpena argi eta egokiak izatea.

Programaren emaitzak aztertzeko, *galdeketa* (ikus 5.eranskina) izango da erabiliko den baliabidea. Tresna hau saioak hasi aurretik eta saio guztiak bukatzerakoan erabiliko da (pretest eta posttest) programaren eraginkortasuna aztertzeko helburuarekin. Beraz, galdeketa ikasleek osatuko duten lehen jarduera izango da. Tresna hau AUDIM galdetegian oinarrituta dago eta 17 galderaz osaturik dago. Ikasleek haien errealitatera gehien hurbiltzen den erantzuna aukeratu beharko dute, 1etik (inoiz ez), 5era (beti) erantzuten. Bertan haien autokontzeptuari buruzko galderak agertuko dira abiapuntua zein den ikusi ahal izateko. Esan bezala, saio guztiak amaitzerakoan, ikasleek berriz beteko dute galdeketa, programak hobekuntzak ekarri dituen edo ez ikusteko. Horrez gain, azken eguneko jarduera honetan programaren inguruko bi galdera erantzun beharko dituzte, gehien eta gutxien gustatu zaizkien jardueren inguruan.

Azkenik, helburuak bete diren edo ez ikusteko, *errubrika* (ikus 6.eranskina) baten bidez ikasleen garapena ebaluatuko da. Errubrika programaren barnean diseinatutako fitxa bat da, ebaluazio-irizpidetan oinarrituta, non behaketaren bidez ikasle bakoitza ebaluatzeko aukera ematen den. Kalifikazioa helburu ez bada ere, tresna honek prozesu hori objektibotasunez egiten laguntzen du. Tresna hau oso erabilgarria izan daiteke, baina horretarako, ezinbestekoa da behaketa lana egitea.

## 6. Ondorioak

Hezkuntzaren helburu nagusietako bat ikasleen garapen integrala lortzea da, alderdi sozial, kognitibo eta afektiboak barne hartuz. Beraz, honen barnean, arlo emozionala aurkitzen dugu eta bizitzan zehar etengabeko aldaketak jasaten dituen arloa izanda, garrantzitsua da txikitatik konpetentzia emozionala lantzea. Ikasleek autokontzeptuaren oinarri sendoa garatzea esaterako.

Hezkuntza estetikoak edo artistikoak aukera ematen die ikasleei "gustatzen zait" edo "ez zait gustatzen" esamoldeak gainditzeko eta beste modu sakonago batean hausnartzeko eta azaltzeko (Rivera, 2019). Eta nola ez, horrek bidea irekitzen dio autokontzeptuaren garapenari. Izan ere, bi kontzeptuak lotuta daudela esan daiteke. Honekin gogora ekarri behar da proposamen honen helburua autokontzeptua arte bisualen bidez garatzea dela.

Proposamen didaktiko honen eraikuntza prozesuan, oinarri teorikoa elikatzea erraza izan da, autokontzeptua zein arte plastikoen inguruan ikerlan ugari egin dira, izan ere, aspalditik ikertutako gaiak dira. Lana kokatzeko oso lagungarria izan da hori, baina proposamena oinarritzeko modu bakarra izan da, izan ere, ez dago lehen hezkuntzara begira aipatutako bi gaiak lotzen dituen programarik. Bestelako adinentzako material gehiago dago edota lehen hezkuntzarako diseinatutako programak orokorrakoak dira, hezkuntza emozionalari begira.

Horren aurrean, zaila izan da programa osatzeko hainbat gairen inguruko informazioa aurkitzea. Curriculumarekin lotura egiterakoan, esaterako, irizpideen diseinua aurrera eraman behar izan da eta bereziki ebaluazioaren atala zaila izan da osatzen. Edozein gairen inguruko ebaluazioa konplexua suertatzen bada, zer esanik ez emozioen inguruan ari garenean. Oso gai subjektiboa da eta ikasle bakoitzak bere modura bizitzen du garapen pertsonala. Beraz, gaiaren zailtasuna eta honen inguruko material falta ikusita, hausnarketa eta lanketa sakona egin behar izan da.

Proposamen hau ezin izan da praktikan jarri eta ondorioz, ez da emaitzarik lortu. Dena den, jakina da horrelako programen emaitzak epe luzera ikusten direla, autokontzeptua ez dela egun batetik bestera garatzen. Adimen emozionalaren barnean ezinbesteko gaia da autokontzeptua eta garrantzitsua eta onuragarria da zehazki hori lantzeko programa bat eskura izatea. Honekin lotuta, programa hau ikasleen behar eta ezaugarriei egokitzeko saiakeran diseinatu da, ahalik eta errealismo gehien emanaz.

Honen harira, argi geratu da lan osoan zehar autokontzeptua lantzea beharrezkoa dela eta kasu errealetara jotzerakoan ere, irakasleak bat etorri dira baieztapen honekin. Ikasleek autokontzeptua eta horrekin batera nortasuna garatzeko beharra dutela ikusi da eta hori dela eta, zaila da ulertzen dokumentu ofizialek arlo emozionalari ematen dioten garrantzia urria. Azken urteetan, ikasleen garapen integralera bideratutako hezkuntza baten aldeko apustua egin nahi izan da eta poliki-poliki eskolak badoaz arlo akademikoaz aparteko lanak burutzen. Dena den, oraindik ere bidea luzea da eta aldaketa guztiek bezala prozesu bat izan behar du honek, baina horretarako garrantzitsua da hezkuntza sailetik laguntza jasotzea eta kasu honetan emozioek duten garrantzia onartzea eta irakasleei beharrezkoak diren formakuntza eta baliabideak eskaintzea.

## **7. Mugak eta hobekuntza proposamenak**

Programa honen diseinua eskola testuinguru baten barnean egin da, hau da, eskolako ordutegi, material eta baliabideei egokituz. Honen inguruan, hainbat aspektuk proposamena aberastu dute eta beste batzuk aldiz, mugatu.

Hasteko denboralizazioari begira, eskolak autokontzeptua bezalako gai bat lantzeko eskaintzen duen denbora ez da gehiegi izaten. Horren aurrean, programa honek oinarrizko lanketa bat biltzen du, abiapuntu moduan lantzeko. Denbora gehiago izanda, dimentsio ezberdinen lanketa sakonago bat egiteko aukera egongo zen, baita jarduera bakoitzari denbora gehiago eskaintzekoa ere. Beraz, programaren denboralizazioa izango litzateke hobetzeko aspektu bat.

Espazioa eskolaren araberakoa izango da, baina gehienetan espazioa nahiko mugatua izaten da. Programako jarduerak ez dute espazio berezirik eskatzen eta ekintzak edozein espaziora moldatu daitezke. Hala ere, emozio eta kasu honetan nortasunaren garapenarekin lan egiten denean, onuragarria izaten da espazio aske eta eroso bat izatea. Ikasleak seguru sentitzeko espazio bat izatea garrantzitsua da eta horretarako gelak txiki geratu daitezke. Eskolak hala uzten badu beste lekuren bat erabili daiteke baina ordutegien aldetik zaila izaten da.

Berdin gertatzen da baliabide materialekin. Eskolak baliabide batzuk eskaini ditzake eta kasu honetan programa horiei moldatzeko saiakera egon da. Kontuan hartzekoa da arte edo hezkuntza plastikoko materiala oso garestia dela eta eskolak ezin diola gastu horri aurre egin.

Aipatu beharreko beste alderdi bat ikasle kopurua da. Alde batetik, autokontzeptua banaka lantzeko ikasle bakoitzari modu indibidualean lagundu behar zaio eta horretarako oso zaila suertatzen da 25 ikasleko gela bat izatea. Jarduera indibidualetan guztiei jaramon egiteko eta lanketa on bat egiteko denbora asko behar da eta ez da oso dinamikoa izaten. Beraz, ikasle gutxiagorekin eramangarriagoa izateaz gain, lanketa sakonagoa izango litzateke. Baina bestetik, esan beharra dago, ikasle asko elkartzean bestelako ikuspuntu bat ematen zaiola lanketari. Berdinen arteko ikaskuntza ahalbidetzen da esaterako, baita taldearen autokontzeptuaren lanketa, izan ere, autokontzeptuaren

garapenean oso garrantzitsua da ondokoen erreferentzia.

Ondorioetan aipatutakoaren harira, muga handia izan da DEKRETUAN arlo emozionalaren inguruko lanketa eskasa. Lan osoan zehar aipatu izan den moduan, zeharka aurkitu daitezke gaiaren inguruko atalak baina proposamen didaktikoa elikatzerako orduan, edukiak, helburuak eta bestelako atalak sortu eta diseinatu behar izan dira.

Beraz, programa honek bere mugak baditu ere, aurretik esan bezala, ikasleen beharretara egokitzeko saiakera egon da, ahalik eta erabilgarrien eta erosoan izaten, bai ikasle zein irakasleentzako. Hobetzeko aspektuak badira noski, baina garrantzitsuena autokontzeptua lantzeko denbora eskaintzea da, ikasleei haien buruak ezagutzeko denbora ematea alegia.

## 8. Erreferentziak

- 236/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumaz zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena.

- Altuna, J.M. eta Arretxe, I. (2008). *Gipuzkoan Emozioak: ezagutu, ikasi, landu, bizi. Adimen Emozionala*. Gipuzkoako Foru Aldundia. [https://www.berrigasteiz.com/monografikoak/bizikasi/bizikasi\\_ekimena\\_baliabideak/praktika\\_onak/adimen\\_emozionala/adimen\\_emozionala\\_gipuzkoa.html](https://www.berrigasteiz.com/monografikoak/bizikasi/bizikasi_ekimena_baliabideak/praktika_onak/adimen_emozionala/adimen_emozionala_gipuzkoa.html) estekatik berreskuratua.

- Amaro-Murillo, G. (2018). *Arte Urbano: del Grafiti al Street Art*.

- Andueza-Olmedo, M, Barbero-Franco, A M, Caeiro-Rodríguez, M, Silva-López, A D., García-Cuesta, J., González-Menéndez, A., ... eta Torres-Pérez, A (2016). *Didáctica de las artes plásticas y visuales en Educación Infantil*. Universidad Internacional de la Rioja.

- Ape, I., Goñi, E., eta Zulaika, L. M (2008). Modificabilidad educativa del autoconcepto físico. *El autoconcepto físico: psicología y educación*, 249-270.

- Bajardi, A. (2015). La identidad personal en relación con la educación: características y formación del concepto.

- Balerdi-Eizmendi, E. B. (2015). Hezkuntza graduko ikasleen autokontzeptu artistikoa. *AusArt*, 3(1).

- Bañuelos-Ramón, T. (2015). *La escultura, el medio, su entorno y su fin* (Doctoral dissertation, Universidad Complutense de Madrid).

- Burset, S. (2017). La didáctica de las artes plásticas: entre lo visual, lo visible y lo invisible. *Didacticae: Revista de Investigación en Didácticas Específicas*, (2), 105-118.

- del Carmen Palópoli, M (2005). *Didáctica de las artes plásticas*. Editorial Bonum.

- Esnaola, I., Goñi, A., eta Madariaga, J. M (2008). El autoconcepto: perspectivas de investigación. *Revista de psicodidáctica*, 13 (1), 69-96.

- Fernández-Zabala, A., Goñi, E., Rodríguez-Fernández, A., eta Goñi, A (2015). Un nuevo cuestionario en castellano con escalas de las dimensiones del autoconcepto. *Revista Mexicana de Psicología*, 32(2), 149-159.

- Flavell JM (1976) *La psicología educativa de Jean Piaget*. Buenos Aires. Paidós .

- Franco, C. (2018). Relajación creativa, creatividad motriz y autoconcepto en una muestra de niños de Educación Infantil. *Electronic Journal of Research in Education Psychology*, 6 (14), 29-50.

- Franco, C. (2006). Relación entre las variables autoconcepto y creatividad en una muestra de alumnos de educación infantil. *Revista electrónica de investigación educativa*, 8 (1), 1-16.

- García-Fernández, M, eta Giménez-Mas, S. I (2010). La inteligencia emocional y sus principales modelos: propuesta de un modelo integrador. *Espiral. Cuadernos del profesorado*, 3 (6), 43-52.

- García-Morales, C. (2012). ¿Qué puede aportar el arte a la educación?: el arte como estrategia para una educación inclusiva. *ASRI: Arte y sociedad. Revista de investigación*, (1), 5-12.
- Gardner, H., eta Nogués, M. T. M. (1995). *Inteligencias múltiples: la teoría en la práctica* (Vol. 29). Barcelona: Paidós.
- González, O., eta Goñi, E. (2005). Dimensiones del autoconcepto social. *International Journal of Developmental and Educational Psychology*, 2 (1), 249-261.
- González, J. A., Nuñez, J. C., González, S., eta García, M. S. (1997). Autoconcepto, autoestima y aprendizaje escolar. *Psicothema*, 9 (2), 271-289.
- Goñi-Palacios, E. (2009). *El autoconcepto personal: estructura interna, medida y variabilidad*. Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua.
- Goñi-Palacios, E., eta Fernandez-Zabala, A. (2007). Los dominios social y personal del autoconcepto. *Revista de psicodidáctica*, 12 (2), 179-194.
- Goñi-Palacios, E., Fernandez-Zabala, A., eta Infante-Borinaga, G. (2012). El autoconcepto personal: diferencias asociadas a la edad y al sexo. *Aula abierta*, 40 (1), 39-50.
- Granadino, F. (2006). La educación inicial y el arte. *Revista digital*.
- Gutiérrez, M. R., eta Fernández, S. (2018). Artistas en el aula: estudio de un caso sobre trabajo colaborativo en el ámbito de las artes plásticas y visuales. *Arte, individuo y sociedad*, 30 (2), 361.
- HEZIBERRI 2020 hezkuntza-eredu pedagogikoaren markoa.
- Kohlberg, L. (1992). *Psicología del desarrollo moral* (Vol. 2). Bilbao: Desclée de Brouwer.
- Lancaster, J. (1991). *Las artes en la educación primaria* (Vol. 21). Ediciones Morata.
- Martínez-Vesga, O. (2005). La tradición en la enseñanza de las artes plásticas. *El artista: revista de investigaciones en música y artes plásticas*, (2), 19-27.
- Mercadé, A. (2019). Los 8 tipos de inteligencia según Howard Gardner: la teoría de las inteligencias múltiples.
- Moore, C., Ugarte, M. eta Urrutia, E. (1987). *Estimulando la creatividad: una experiencia en el sistema educacional chileno*. Tesis doctoral no publicada. Universidad de Chile.
- Murgui, S., García, C., eta García, Á. (2016). Efecto de la práctica deportiva en la relación entre las habilidades motoras, el autoconcepto físico y el autoconcepto multidimensional. *Revista de psicología del deporte*, 25 (1), 19-25.
- Nuñez-Pérez, J. C., González-Pumariega, S., eta González-Pianda, J. A. (1995). Autoconcepto en niños con y sin dificultades de aprendizaje. *Psicothema*, 7 (3), 587- 604.



- Oinarrizko Hezkuntzako Curriculuma (236/2015eko Dekretuaren II. Eranskina osatzen duen curriculum orientatzailea).
- Piaget, J., eta TEORICOS, A (1976). Desarrollo cognitivo. *España: Fontaine*.
- Polo, L. (2000). Tres aproximaciones al arte terapia. *Arte, Individuo y sociedad*, 12, 311-320.
- Real Academia Española: *Diccionario de la lengua española*, 23. ed., [23.3 online bertsioa]. <<https://dle.rae.es>> estekatik berreskuratua.
- Revuelta, L., Esnaola, I., eta Goñi, A (2016). Relaciones entre el autoconcepto físico y la actividad físico-deportiva adolescente. *Revista internacional de Medicina y Ciencias de la Actividad Física del Deporte*.
- Rivera, M A (2019). Estudio mixto sobre el autoconcepto profesional del maestro de artes visuales y su vínculo con el aprovechamiento académico de los estudiantes del departamento de educación de Puerto Rico. Universidad Ana G. Méndez.
- Rodríguez-Aranda, S. E. (2010). Arte, dibujo y actualidad. *I+ Diseño: revista internacional de investigación, innovación y desarrollo en diseño*, 3 (3), 69-81.
- Rodríguez, E. (2007). Aplicaciones del Arteterapia en el aula como medio de prevención y fomento de las relaciones sociales. *Papeles Del Arteterapia Para La Educación Artística Y La Inclusión Social*, Vol 2, 275– 291.
- Schmidt, V., Messoulam, N., eta Molina, F. (2008). Autoconcepto académico en adolescentes de escuelas medias: Presentación de un instrumento para su evaluación. *Revista Iberoamericana de Diagnóstico y Evaluación-e Avaliação Psicológica*, 1 (25), 81-106.
- Vispoel, W. P. (1993). The development and validation of the Arts Self-Perception Inventory for Adolescents. *Educational and Psychological Measurement*, 53 (4), 1023-1033.
- Zorzano, M (2018). Programación didáctica en Lengua Castellana y Literatura para 5º de Primaria.
- Zúñiga, D. (2005). Educación por el arte 2. Arequipa, Perú: Ediciones Independencia.

## **9. ERANSKINAK**

## 1. ERANSKINA: Irakasleen galdetegiak

# IRAKASLEENTZAKO GALDETEGIA

**IKASTETXEA:** Ibaiondo ikastetxea, Gasteiz

**GELA:** LH5B

### NOLA LANTZEN DA AUTOKONTZEPTUAZURE GELAN?

Autokontzeptuaren definizioa: autokontzeptua, norberak bere buruaz duen irudia da, kanpoko zein barneko informazioaren metaketa integratzaileak zehazten duena, eta estilo eta balore-sistemen interakzioaren bidez epaitu eta baloratzen dena.

#### 1. Gelan arlo emozionala lantzen duzue? Noiz? Nola?

Bai, talde handian hainbat ariketa egin izan dira, tutoretza orduak izaten dira proposenak arlo emozionala lantzeko.

Egunero sortzen da zeozer batengandik edo besteengandik emozioak adierazteko beharra ekartzen duena, eta tarte hori eskaintzea ezinbestekoa da umeez lasaiago lan egin dezaten. Bestela atentzioa ez da berdina eta sozializatzeko erramintak ere behar dituzte ikasi, ahal den elkarbizitza hobea eduki dezaten, bai beraiek eta bai nik irakasle bezala, denok behar dugu.

Emozioen kutxa izan dugu gelan eta astero irakurri izan dugu bertan beraien era anonimoan idatzitakoa, honek batzuetan talde handiko lanketa eskatu du, bestetan bakarkakoa... beharren arabera.

Adostokia ere izan dugu, konfliktu baten aurrean nola konpondu: pauso batzuk jarraituz. Bata besteari entzuteko beharra, txanda itxaron nik ere hitzegiteko, ze emozio sortarazten dit gertatutakoak, eta nire jokabideak ze emozio sortarazten du... nola konpondu dezaket eta ze konpromezu hartu dezaket...

Hasieran nahiko gidatua izaten da, pausuak emateko laguntza behar izaten dute baina azkenerako nahiko era autonomoan egiten bukatzen dute.

Beste iharduera batzuk ere egin ditugu, maleta ibiltaria adibidez, bakoitzak maletan sartzen du bere pertsonalitatea adierazten duen objekturen bat edo argazkia... hiru-lau gauza. Txikitako jostailuren bat, momentu polit edo... adierazten duen argazki bat, egunero behar duen objektu, pelutxe, baloi... gauzaren bat, eta besteen aurrean aurkeztean bere burua ezagutzera ematen du eta horrela bere sentimenduak adierazten ditu. Batzuei besteenganako duten irudia zeharo aldatzen zaie.

Adierazgarria aurten enpatiterapia tailerra izan da, emozioak eta enpatia landu izan dituzte 6 orduko tailer honetan, gidatua izan da eta umeez ederki parte hartu dute.

## **2. Gelan autokontzeptua lantzen duzue? Noiz? Nola?**

Egia esan, aurreko galderan emandako ihardueretan bai besteenganako eta bai norberaren lanketa egiten da.

## **3. Ikasleek autokontzeptua lantzeko beharra dutela uste al duzu? Zergatik?**

Bai noski baietz, azkenean norberak bere burua ezagutzean besteengana hurbiltzeko bere jokabideaz kontzienteago da eta azkenean hori da elkarbizitza on bat edukitzeko behar duguna. Bakoitzak bere jokabidearen kargu egin eta inguruan besteenganako empatia edukitzen saiatu, baita ere norberak behar duena adierazi eta negoziazio batera iritsi. Adostokiak asko laguntzen du horretan.

Baita ere, edozein lanen aurrean, gai berri bat hasi behar dugunean, bukatzen dugunean, azterketak egin eta gero.... autoebaluazioak ezinbestekoak dira. Beraiek autokontzeptua lantzeko aukera ematen zaie eta autonomia gehiagorekin lan egiteko aukera ere. Zuzenketatik asko ikasten da, era konstruktibo batean.

## **4. Eskolan autokontzeptua garatzeko egiten den lanari laguntzeko familiaren papera garrantzitsua dela uste al duzu? Zergatik?**

Bai, eskolan sortzen diren gauzak ez dira normalean beste esparrutan sortzen, eta umeek aukera paregabea dute autokontzeptua garatzeko, etxean jarraipena garrantzitsua da umeak bere jokabide horretatik ikusitakoa lantzeko. Ez da beti lortzen... Baina momentu horretan ez bada beste egoera batekin berriz aterako da.

## **5. Uste duzu lanketa horrek denbora nahikoa hartzen duela edo gehiago eskainiko zenioke?**

Umeek akademikoki kontzeptuak barneratzeko ezinbestekoa da barrutik ahal den lasaien egotea, eta horretarako arlo emozionala lantzea ezinbestekoa da. Geroz eta ume gehiago daude ikasteko arazoekin, argi dago, irakasle ordezkia naiz eta urtero, nagoen eskolan, egoera berdina edo antzekoak ikusten ditut, behin eta berriro. Denbora gehiago eskaini behar zaio, noski baietz, baina azkenerako hainbeste gauzeekin pilatzen gara ikasturtea bukatzen denean pena horrekin gelditzen garela.

## **6. Uste al duzu arte hezkuntzak autokontzeptua hobetzeko aukera eman dezakeela?**

Bai, ume askok ez dakite bere sentimenduak hitzez adierazten, eta arte hezkuntzak asko laguntzen du horretan.

Aurten nire ikasle bati anaia hil zaio eta dolua landu behar izan dugu. Hainbat iharduera egin ditugu gelan baina adierazgarriena musika erabiliz egin genuena izan da. Neskato honi gure sentimenduak adierazteko musika ipini nuen eta norberak, marrazkien bidez, hitzen bidez... nahi izandako bidea aukeratu zezaketen, eta gauza

oso politak egin zituzten bai neskatoarentzako eta bai beraiantzako. Oso polita izan zen esperientzia.

**- Zure gelako ikasleek euren buruak ezagutzen dituztela uste duzu?**

GUTXI      1      **2**      3      4      5      ASKO

**- Zer garrantzia dauka eskolak autokontzeptua garatzerako orduan?**

GUTXI      1      2      3      **4**      5      ASKO

**- Zer garrantzia ematen diozu ikasleen izaeraren garapenari zure saioetan?**

GUTXI      1      2      3      4      5      **ASKO**

**Zerbait gehiago aipatzea interesgarria iruditzen al zaizu?**

# IRAKASLEENTZAKO GALDETEGIA

**IKASTETXEA:** Ibaiondo ikastetxea, Gasteiz

**GELA:** LH5A

## **NOLA LANTZEN DA AUTOKONTZEPTUAZURE GELAN?**

Autokontzeptuaren definizioa: autokontzeptua, norberak bere buruaz duen irudia da, kanpoko zein barneko informazioaren metaketa integratzaileak zehazten duena, eta estilo eta balore-sistemen interakzioaren bidez epaitu eta baloratzendena.

### **1. Gelan arlo emozionala lantzen duzue? Noiz? Nola?**

Arlo emozionala egunero lantzen dugu ikasleekin. Esango nuke ez dugula finkatzen une jakin bat gai horri propio ekiteko. Ikaskuntza (ez irakaskuntza) ulertzeko modu interesgarria bezain bizia baita. Horiek horrela, espero ez dugunean, milaka aukera ematen dizkigu eguneroko jardunak ikasleen baitako eta ezkutuan doan hori lantzeko. Tutoretza saioak ere baliatzen ditugu eskolan, betiere dinamika zehatz batzuetan aritzeko xedez.

Material ugari daude argitaratuta beharrari erantzuteko: monstroa, sentimenduak eta emozioak lantzeko ipuinak, Berritzeguneko webgunea...

### **2. Gelan autokontzeptua lantzen duzue? Noiz? Nola?**

Aurten, hainbat dinamika abian jarri dugu; IK-KI-ko programan oinarritutako jardueretan oinarrituta. Besteak beste, ikaskuntza kooperatiboak hamaika aukera eskaintzen dizkigu matematika, euskara, zientziak... lantzearekin batera autokontzeptua lantzeko.

Enpatiterapia, erresilientzia... eta estilo honetako lan proposamenei heltzen diegu urtero-urtero, jakitun baikara nork bere buruarengan duen kontzeptuak eta konfiantzak berebiziko garrantzia hartzen dutela etapa honetan.

### **3. Ikasleek autokontzeptua lantzeko beharra dutela uste al duzu? Zergatik?**

Jakina, ikasle bakoitzak bere buruari zor dion miresmenaren arabera jokatzeko baitu hainbat egoeraren aurrean: patioan, etxean, lagunartean.... Hainbatetan porrot akademikoa ekarri ahal du autokontzeptua behar bezala ez lantzeak. Esan nahi dut batzuetan familiek guk baino argiago izaten dutela; izan ere, arlo emozionalaren gainean arazoak daudenean, bigarren mailan geratzen direla ikasketa akademikoak. Autokontzeptuaren balioak du lehentasuna. Ordena horretan gainera.

**4. Eskolan autokontzeptua garatzeko egiten den lanari laguntzeko familiaren papera garrantzitsua dela uste al duzu? Zergatik?**

Orain arte familiaren arteko zubi-lana ezinbestekoa izan bada, are garrantzitsuago bilakatu da konfinamendu egoera honetan. Asteotako lanak argi asko utzi du irakasleonek ahulezia, gabezia... Orain konturatu gara triangelu horretan (ikasle-irakasle-familia) familiek betetzen duten funtzioa ezin dela izan irakaslearen paper hutsa betetzea. Harago joan beharra daukagu, beraz.

**5. Uste duzu lanketa horrek denbora nahikoa hartzen duela edo gehiago eskainiko zenioke?**

Esan bezala, hemendik aurrera lanketa horrek denbora gehiago hartu beharko luke. Ezinbestean. Ikasleek gure laguntza ez ezik, familiarena ere behar dute. Arlo akademikoa, bai, eskolan gara daiteke Instituzioa horretarako ondo prestatu baitago. Bestelako erronka da, ordea, eskola bera eremu integratzaile bilakatzeko. Azken ibilbide horretan familiek zeresan handia dute. Ikasleek babesa behar dute eta bere apendizaiak ebaluazio hezigarrian oinarritu beharra dago. Finean, pertsona oso baten profilaz ari gara.

**6. Uste al duzu arte hezkuntzak autokontzeptua hobetzeko aukera eman dezakeela?**

Aurten hala demostratu dugu ikasgelan. Ederra da talde oso baten bilakaera ikustea artelan baten aurrean! Paradoxikoa bada ere, arlo akademikoan arazoak izaten dituzten ikasleek -eta, horren ondorioz, nolabaiteko zigor akademiko-soziala pairatzen duten ikasle horiek- bestelako gaitasuna erakutsi ohi dute arte hezkuntzan buru-belarri aritzean.

**- Zure gelako ikasleek euren buruak ezagutzen dituztela uste duzu?**

GUTXI      1      2      3      4      5      ASKO

**- Zer garrantzia dauka eskolak autokontzeptua garatzerako orduan?**

GUTXI      1      2      3      4      5      ASKO

**- Zer garrantzia ematen diozu ikasleen izaeraren garapenari zure saioetan?**

GUTXI      1      2      3      4      5      ASKO

**Zerbait gehiago aipatzea interesgarria iruditzen al zaizu?**

## 2. ERANSKINA: Saio fitxak

SAIOEN EKINTZA NAGUSIAK	
1. <u>Saioa: Nolakoa naiz ni?</u>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Marraztu zure burua.</li><li>- Antzekotasunak eta ezberdintasunak.</li></ul>
2. <u>Saioa: Nire burua ezaqutzen al dut?</u>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Musikarekin margotzen.</li><li>- Noiz sentitzen dut...</li></ul>
3. <u>Saioa: Nor naiz ni?</u>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Zer da garrantzitsua niretzako?</li><li>- Collageak sortzen.</li></ul>
4. <u>Saioa: Zertan naiz ona?</u>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Zer eskaini dezaket? Iragarkiak sortzen.</li><li>- Gure gelako orrialde horiak.</li></ul>
5. <u>Saioa: Zertan hobetu behar dut?</u>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Zertan hobetu behar dut? Buztinarekin irudikatzen.</li><li>- Nola lortu dezaket hori?</li></ul>
6. <u>Saioa: Nolakoak gara?</u>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Ezberdinak gara eta horrek aberasten gaitu.</li><li>- Gure grafitia.</li></ul>



## 1. SAIOA – NOLAKOA NAIZ NI?

Saioaren helburua	Nork bere burua ezagutzeko lehenengo pausoak ematea, gerora ikasleen arteko berdintasun eta ezberdintasunak identifikatzeko.			
Helburu didaktikoak	Autokontzeptua: 1, 2, 4	Eduki didaktikoak	Autokontzeptua garatu + Arterako konp. 1 eta 2	
Konpetentziak	1 3 4 + Arterako kompetentzia			
1. jarduera	SARRERA	Deskribapena	Materiala	Denbora
		Ekintzekin hasi aurretik, ikasleei programaren helburua eta funtzionamendua azalduko zaie. Autokontzeptuaren inguruan zer dakiten galdetuko zaie eta zer espero duten ere galdetuko zaie. Horrekin batera hasierako galdetegia pasako zaie.	Hasierako galdetegia	10 min
2. jarduera	MARRAZTU ZURE BURUA	Deskribapena	Materiala	Denbora
		Ikasle bakoitzak indibidualki orrialde batean bere buruaren marrazki bat egingo du. Norberak erabakiko du gorputza, burua, biak edo bestelako irudikapen batekin adierazi nahi duen bere burua. Behin marraztuta eta margotuta inguruan 5 ezaugarri idatzi edo marraztu beharko dituzte.	Orrialde zuriak (ikasle bakoitzeko) Arkatzak/boligrafoak Margoak/errotulagailuak	20 min
3. jarduera	ANTZEKOTASUNAK ETA EZBERDINTASUNAK	Deskribapena	Materiala	Denbora
		Ikasleak taldeka jarriko dira (4-5 ikasle) eta bakoitzak egindakoa aurkeztuko du. Behin denek aurkeztuta, beste orri batean bi zutabe egingo dituzte batean antzekotasunak eta bestean ezberdintasunak adieraziz. Honetan aske izango dira idatziz zein marraztuz adierazteko.	Orrialde zuriak (talde bakoitzeko) Arkatzak/boligrafoak Margoak/errotulagailuak	15 min
4. jarduera	HAUSNARKETA ETA EBALUAZIOA	Deskribapena	Materiala	Denbora
		1. Egunerokoa zer den azaldu eta lehendabiziko eguna beteko dute ikasleek. Egunerokoa derrigorrezkoa bada ere, haren funtzionamendua denon artean erabakiko da. 2. Taldeko ebaluazioa ere beteko dute.	Eguneroko eredu Talde ebaluazio fitxak Arkatzak/boligrafoak Margoak/pegamentua/artaziak...	15 min

## 2. SAIOA – NIRE BURUA EZAGUTZEN AL DUT?

Helburua	Norberak sentimendu ezberdinak identifikatzea eta egunerokotasunarekin lotzea, autokontzeptu emozionalean zentratuz.			
Helburu didaktikoak	Autokontzeptua: 1, 2, 5	Eduki didaktikoak	Autokontzeptua garatu + Arterako konp. 1 eta 2	
Konpetentziak	1 3 4 + Arterako konpetentzia			
1. jarduera				
1. jarduera	AURREKO SAIOAN...	Deskribapena	Materiala	Denbora
		Eguneko ekintzekin hasi aurretik, aurreko egunean egindako marrazkia ekarriko dute gogora ikasleek egunerokoa erabiliz. Honekin saioei jarraitasuna emango zaie eta ikasleen lanketasak onagoa izango da.	Egunerokoa	5 min
2. jarduera				
2. jarduera	MUSIKAREKIN MARGOTZEN	Deskribapena	Materiala	Denbora
		Musika ezberdinak jarriko dira eta modu indibidualean sentitu dutenaren arabera kolore bat hautatu eta nahi dutena marraztuko dute. Kasu honetan kolorea izango da garrantzia hartuko duena.	Musika ezberdinak Kartulina zuriak (ikasle bakoitzeko) Tenperak eta pintzelak	20 min
3. jarduera				
3. jarduera	NOIZ SENTITZEN DUT...	Deskribapena	Materiala	Denbora
		Aurreko ariketa erreferentziatzat hartuta, abesti bakoitzean zer sentitu duten azalduko dute eta zer kolorekin lotzen duten hori. Emozio ezberdinak aterako dira eta bakoitzak estimulu berdinekin gauza ezberdinak sentitzen dituela ikusiko dute. Emozio horiek noiz sentitzen dituzten ere azalduko dute.	-	20 min
4. jarduera				
4. jarduera	HAUSNARKETA ETA EBALUAZIOA	Deskribapena	Materiala	Denbora
		1. Egunerokoa hartu eta bigarren eguna beteko dute ikasleek. Idazteaz gain, egindako marrazkiak eta koloreen orrialdea itsatsi edo bertan gordeko dute. <i>* Hurrengo saiorako haien bizitzetan garrantzitsuak diren gauzen argazkiak ekarri behar dituzte.</i>	Egunerokoa Arkatzak/boligrafoak Margoak/kola/artaziak...	15 min

3. SAIOA – NOR NAIZ NI?				
Helburua	Aurreko saioko autokontzeptu orokorrean gehiago sakontzea ikasleen testuinguruan zentratuz.			
Helburu didaktikoak	Autokontzeptua: 1, 2, 4, 5	Eduki didaktikoak	Autokontzeptua garatu + Arterako konp. 1 eta 2	
Konpetentziak	1 3 4 + Arterako kompetentzia			
1. jarduera	AURREKO SAIOAN...	Deskribapena	Materiala	Denbora
		Eguneko ekintzekin hasi aurretik, aurreko egunean egindakoa ekarriko dute gogora ikasleek egunerokoa begiratzuz. Honekin saioei jarraitasuna emango zaie eta ikasleen lanketa sakonagoa izango da.	Egunerokoa	5 min
2. jarduera	ZER DA GARRANTZITSUA NIRETZAKO?	Deskribapena	Materiala	Denbora
		Azken saioan etxerako lan moduan haien bizitzetan garrantzitsuak diren gauzei argazki bat egiteko eskatu zitzaien eta jarduera honetan argazki horien inguruan mintzatuko dira ikasleak. Kasu batzuetan baliteke gauza garrantzitsuak fisikoak ez izatea, kasu horretan hori irudikatzen duen zerbaiti egin beharko diote argazkia.	Etxetik ekarritako argazkiak	10 min
3. jarduera	COLLAGEAK SORTZEN	Deskribapena	Materiala	Denbora
		Bildutako argazkiekin, modu asko batean collage bat sortu beharko dute, horretarako material gehiago izango dute eskura. Collage horrek norberaren gauza garrantzitsuak irudikatzeaz gain, ikasleen nortasuna ere utziko du agerian. Horrekin haien buruak gehiago ezagutuko dituzte eta prozesuaren inguruan hausnartuko dute.	Kartulinak Margoak/errotulagailuak Artaziak/kola Material ezberdina: aldizkariak, artilea, botoiak, oihalak...	35 min
4. jarduera	HAUSNARKETA ETA EBALUAZIOA	Deskribapena	Materiala	Denbora
		1. Egunerokoa hartu eta bigarren eguna beteko dute ikasleek. Idazteaz gain, egindako collagea itsatsi edo bertan gordeko dute.	Egunerokoa Arkatzak/boligrafoak Margoak/kola/artaziak...	10 min

## 4. SAIOA – ZERTAN NAIZ ONA?

Helburua		Autokontzeptu orokorraren barruan alderdi positiboak identifikatzea. Autokontzeptuaren barruan dimentsio ezberdinak lantzeko aukera egongo da, alderdi positibo horiek edozein dimentsiotakoak izan baitaitezke.			
Helburu didaktikoak		Autokontzeptua: 1, 3, 4, 5	Eduki didaktikoak	Autokontzeptua garatu + Arterako konp. 1 eta 2	
Konpetentziak		1 3 4 + Arterakokompetentzia			
1. jarduera	AURREKO SAIOAN...	Deskribapena		Materiala	Denbora
		Eguneko ekintzekin hasi aurretik, aurreko egunean egindakoa ekarriko dute gogora ikasleek egunerokoa begiratu. Honekin saioei jarraitasuna emango zaie eta ikasleen lanketa sakonagoa izango da.		Egunerokoa	5 min
2. jarduera	ZERTAN NAIZ ONA? ZER ESKAINI DEZAKET? IRAGARKIAK SORTZEN	Deskribapena		Materiala	Denbora
		Banaka ikasleek “zertan naiz ona” galderari erantzungo diote eta horrekin iragarki bat sortuko dute. Iragarkia bisualki erakargarria izan behar da. Kasu honetan haien sortutako irudiak edo argazkiak erabiliko dituzte, ez aldizkari edo egunkarietatik ateratakoak.		Kartulinak eta koloretako paperak Margoak/errotulagailuak Artaziak/kola Argazkiak	40 min
3. jarduera	GURE GELAKO ORRIALDE HORIAK	Deskribapena		Materiala	Denbora
		Ikasle guztiak haien iragarkiak bukatu dituztenean, guztiak gelako orrialde horiak sortuko dituzte, laguntza behar dutenean nora jo izan dezaten. Orrialde horiak sortzeko talde txikietan bilduko dira eskaintzen duten laguntzaren arabera. Ondoren besteen aurrean aurkeztu eta denak batuko dituzte.		Artxibagailu bat	5 min
4. jarduera	HAUSNARKETA ETA EBALUAZIOA	Deskribapena		Materiala	Denbora
		1. Egunerokoa hartu eta bigarren eguna beteko dute ikasleek. Idazteaz gain, egindako collagea itsatsi edo bertan gordeko dute.		Egunerokoa Arkatzak/boligrafoak Margoak/kola/artaziak...	10 min

## 5. SAIOA – NOLAKOAK GARA?

Helburua	Autokontzeptu orokorra gaindituz, dimentsio sozialean lanketa egitea.			
Helburu didaktikoak	Autokontzeptua: 1, 2, 5	Eduki didaktikoak	Autokontzeptuagaratu + Arterako komp. 1 eta 2	
Konpetentziak	1 2 3 4 + Arterakokompetentzia			
1. jarduera	AURREKO SAIOAN...	Deskribapena	Materiala	Denbora
		Eguneko ekintzekin hasi aurretik, aurreko saioak zertan ziren onak ikusi ondoren, horren inguruan pentsatzeko denbora izan dute, saio honetan buelta emango diote horri. Honekin saioei jarraitasuna emango zaie eta ikasleen lanketa sakonagoa izango da.	Egunerokoa	5 min
2. jarduera	ZERTAN HOBETU BEHAR DUT? BUZTIANREKIN IRUDIKATU	Deskribapena	Materiala	Denbora
		Ikasleek “zertan hobetu behar edo nahi dut” galderari erantzun beharko diote eta azaldu aurretik, buztinarekin irudikatu beharko dute. Ez da irudi konkretu bat izan behar, haietzako hutsune hori irudikatu behar du. <i>*Labean sartzeko aukerarik balego, ondoren margotu ahal izango dute. Bestela hurrengo egunean egin daiteke.</i>	Buztina Kamiseta zaharrak *Margoa *Labea	35 min
3. jarduera	NOLA LORTU DEZAKET HORI?	Deskribapena	Materiala	Denbora
		Zertan hobetu nahi duten ikusita horri aurre egiteko modua bilatuko dute. Baliteke lanketa pertsonalaren bitartez egitea baina orrialde horien erabilpena sustatzen saiatuko gara, berdin arteko ikasketa sustatuz.	Orrialde horiak	10 min
4. jarduera	HAUSNARKETA, EBALUAZIOA ETA AMAIERA	Deskribapena	Materiala	Denbora
		1. Egunerokoa grafitiaren ariketa azalduko dute.	Egunerokoa Arkatzak/boligrafoak Margoak/kola/artaziak...	10 min

## 6. SAIOA – ZERTAN HOBETU BEHAR DUT?

Helburua		Autokontzeptu orokorraren barnean hutsuneak identifikatzea eta aurre egiteko gai izatea.		
Helburu didaktikoak		Autokontzeptua: 1, 3, 4, 5	Eduki didaktikoak	Autokontzeptua garatu + Arterako konp. 1 eta 2
Konpetentziak		1 2 3 4 + Arterako konpetentzia		
1. jarduera	AURREKO SAIOAN...	Deskribapena	Materiala	Denbora
		Eguneko ekintzekin hasi aurretik, aurreko egunean egindakoa ekarriko dute gogora ikasleek egunerokoa begiratzuz. Honekin saioei jarraitasuna emango zaie eta ikasleen lanketa sakonagoa izango da.	Egunerokoa	5 min
2. jarduera	EZBERDINAK GARA ETA HORREK ABERASTEN GAITU	Deskribapena	Materiala	Denbora
		Saio guztietan zehar egindako lanketaren ondoren nor bere burua hobeto ezagutu du eta ezberdinak izatea gela eta gizartea aberasten duela ikusi da. Bakoitzak gelaren eta norberaren ezaugarri bana idatzi ko du. Komunean jarriko da eta hitzik esanguratsuenak hautatuko dira.	Orrialde zuriak Arkatzak/Boligrafoak	10 min
3. jarduera	GURE GRAFITIA	Deskribapena	Materiala	Denbora
		Aukeratutako hitzekin grafiti bat egingo da, horretarako taldeka hitzak banatuko dira eta diseinu bat proposatuko dute. Besteen aurrean aurkeztu eta diseinu guztiak batuko dira. Ondoren paper handi batean markatu eta margotuko dute grafitia. Ideia ona izan daiteke eskolako pasabideren batean kokatzea.	Diseinuarentzako orrialde zuriak Arkatzak/boligrafoak/margoak Paper handia Tenperak/pintzelak Kamiseta zaharrak	30min
4. jarduera	HAUSNARKETA, EBALUAZIOA ETA AMAIERA	Deskribapena	Materiala	Denbora
		1. Egunerokoa hartu eta bigarren eguna beteko dute ikasleek. Idazteaz gain, egindako collagea itsatsi edo bertan gordeko dute. 2. Taldeko ebaluazioa ere beteko dute. 3. Azkenik hasieran bete zuten galdetegia pasako zaie programaren eragina ikusteko asmoz.	Egunerokoa Galdetegia Arkatzak/boligrafoak Margoak/kola/artaziak...	15 min



NOLA SENTITU NAIZ?

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

ZER IKASI DUT?

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---



#### 4. ERANSKINA: Ebaluazio tresnak – Taldean lan egiten

### TALDEAN LAN EGITEN

Taldekide guztien artean osatu.

(1= gutxi/gaizki, 2= nahiko gutxi, 3= hala nola, 4=asko/ondo, 5= primeran)

DATA					
TALDEKIDEAK					
	1	2	3	4	5
Nolakoa izan da taldekideen arteko komunikazioa?					
Taldeak modu antolatuan egin du lan?					
Taldekideen artean lana orekatuta egon da?					
Taldekide bakoitzak egin behar zuena egin du?					
Taldekide guztien ideiak entzun dira?					
Arazo edo gatazkak konpontzeko gai izan da taldea?					

### OHARRAK

---

---

---

---

---

---

---

---

---

## 5. ERANSKINA: Ebaluazio tresnak – Galdeketa

### GALDEKETA

Bete taula X batekin.

	1 Inoiz ez	2 Gutxitan	3 Batzuetan	4 Askotan	5 Beti
Badakit gauzak ondo egiten ditudanean					
Zerbait gaizki egiterakoan konpontzen saiatzen naiz					
Gustatzen zaidana argi daukat					
Nire zaletasunetaz harro nago					
Ikasketetan trebea naiz					
Irakasleak niri galdetzea gustatzen zait					
Taldean nagoenean onartua sentitzen naiz					
Nahiago dut bakarrik egotea					
Laguntza behar dudanean lagun edo familiarengana jotzen dut					
Badakit lagun bat gaizki dagoenean					
Badakit ni nola sentitzen naizen					
Gaizki nagoenean badakit nola konpondu					
Nire gorputza gustuko dut					
Trakets ikusten dut nire burua Gorputz Hezkuntzan					
Badakit egiteko gai naizen edo ez erronka fisiko baten aurrean					
Nire burua ezagutzen dut					
Ez naiz gustura sentitzen nire buruarekin					

## PROGRAMARI BURUZKO EBALUAZIOA

(saio guztiak aurrera eraman ostean betetzeko)

ALDERDI POSITIBOAK: Zer da gehien gustatu zaizuna?

HOBETZEKO PROPOSAMENAK: Zer aldatu edo hobetuko zenuke?

## 6. ERANSKINA: Ebaluazio tresnak – Errubrika

Ebaluazio irizpideak	HOBETU BEHAR DU	BIDEAN DAGO	ONDO	OSO ONDO
1. Autokontzeptuaren garapen prozesua egokia izan da.	Ez da ondo moldatu garapen prozesuan eta ez du apenas ezarritako helbururik lortu.	Prozesua gehiago kostatu arren poliki-poliki ezarritako helburuak betetzen doa.	Gehienetan eroso sentitu da eta ezarritako helburu gehienak bete ditu.	Eroso sentitu da prozesu osoan zehar eta jarduera bakoitzean ezarritako helburuak bete ditu.
2. Autonomia erakutsi du autokontzeptuaren garapen prozesuan.	Ez du autonomiarik erakutsi, laguntza behar izan du jarduera guztietan.	Batzuetan autonomia erakutsi du baina ez du ziurtasuna erakutsi jarduerak burutzerakoan.	Gehienetan autonomia erakutsi du eta gai izan da jarduerak aurrera eramateko.	Autonomia erakutsi du momentu oro eta jarduerak ziurtasun handiz burutu ditu.
3. Arte adierazpenak autokontzeptua garatzen laguntzeko erabili ditu.	Arte adierazpenak erabiltzea kostatu zaio eta zailtasun handiak izan ditu sormen prozesuan.	Arte adierazpenak erabili ditu helburuak lortzeko baina sormen prozesuan zailtasunak erakutsi ditu.	Arte adierazpenak erabili ditu ezarritako lortzeko eta gehietan ondo aritu da sormen prozesuan.	Arte adierazpenetaz baliatu da ezarritako helburuak lortzeko eta primeran moldatu da sormen prozesuan.
4. Autokontzeptua lantzerakoan alde positibo zein negatiboekin lan egiteko gai izan da.	Alderdi positibo zein hobetzekoetan zailtasunak erakutsi ditu.	Alderdi positiboak egoki landu ditu baina hobetzekoak ez ditu onartu. (Edo alderantziz)	Alderdi positiboak primeran landu ditu baina hobetzekoetan, lortu arren, gehiago kostatu zaio. (Edo alderantziz)	Alde positibo zein hobetzeko arloak onartu eta modu egokian landu ditu.
5. Autokontzeptuaren dimentsioen zeharkako lanketa egin du (emozionala, akademikoa, soziala eta fisikoa).	Zailtasunak erakutsi ditu dimentsio ezberdinak lantzerako orduan.	Dimentsio batzuk besteak baino gehiago landu ditu, ez ditu denak modu orekatuan garatu.	Orokorrean dimentsio guztietan ondo egin du lan baina modu orokorrean, ez da ezberdintzeko gai izan.	Dimentsio guztietan lan sakona egin du eta arloak ezberdintzeko gai izan da.
6. Taldekideen garapen prozesua errespetatu du.	Ez du taldekideen banakako lana errespetatu eta besteen prozesua oztopatu du.	Batzuetan taldekideen garapen prozesua errespetatu du baina ez beti.	Taldekideen garapen prozesua errespetatu du.	Taldekideen garapen prozesua errespetatu du eta hobetzen lagundu du.
7. Taldean autokontzeptua lantzeko gaitasuna erakutsi du.	Ez da talde lanera moldatu eta talde lana zaildu egin du.	Taldean ezarritakoa ondo bete du baina ez du lana aurrera eramaten lagundu.	Taldean ondo moldatu da eta talde lanaren beharretara moldatu da.	Taldean oso ondo moldatu da eta jarduerak funtzionatzen lagundu du.

